

**JUAN MARI LEKUONAREN
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Oiartzun, 1988-VII-30

JUAN MARI LEKUONA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Oiartzun, 1988-VII-30

Jon Iñarra

herriko Alkatea

Euskaltzain agurgarriok, jaun-andreok, eguerdi on guztioi:

Ongi etorriak izan zaitezte denok gure herrira. Oiartzun gaurko egunean bere apaingarriok ederrenekin jantzita dagoela esango banizue, beharbada dotoreziatzko hitz hutsak direla pentsatuko zenukete. Baina ez dira axaleko hitzak-bene-benetakoak baizik. Gutxienekoa da, nahiz eta berriztaturik agertzea gaur hemen, denon aurrean. Kanpoko apainduriak barrukoaren ispilu izan behar bait du. Eta zerbait eta inoiz izatekotan, gaur bai dugula oiartzuarrok pozik eta harro egoteko arrazoi sakona: herriko seme bat, Juan Mari Lekuona, euskal kultur erakunderik ospetsueneko partaide izendatua ikustea. Juan Mari Lekuona, oiartzuar peto-petoa, euskararen alorreko langile fina, adiskide jatorra, guar hemen omentzea, neurri batean bederen, Oiartzun osoa omentzea bait da, gure hizkuntzaren eta kulturaren mendeetako harrobi, hizkeraz nafar, historiaz giputz, eta izakeraz osoki euskaldun den gure Oiartzun hau.

Nori berea omen da zuzenbidea, eta burubidea. Ezin hasiko naiz, beraz, neure ofizioko gorabeheraz, Udaleko administrazioaren trikimailuez eta politikazko tirabidez zertxobait jakitearekin ere nahiko lan badudan Alkate hau, orain, zuen aurrean, Juan Marik euskal kulturaren alorrean egindako lan sakon eta baliotsuen goraipamena egiten. Ez da hori, noski nire eginkizuna; atrebentzia lotsagabea ere izan liteke ni gai horretaz mintzatzea: inondik ere, zuek bait duzue hitza horretan, euskaltzain jaun agurgarriok. Baina, era berean, eta herri honen ordezkari naizen aldetik, ez nioke muzin egin nahi neure eginbeharra derizkiodanari. Neure gain, besteak beste, ardua politikoa ere badudanez gero, besteak beste, politikoki ere mintzatu beharra dagokidala uste bait dut. Alderdikeriarik gabe, ahal dela, hori bai, gauza xamurra ez baldin bada ere. Dena dela, ez dut uste inongo euskaldun euskaltzalek aldedikeriatzat hartuko duenik, zuek egun handi berezi honetan gure herrira inguratu zaretela-eta egokieraz baliaturik, jaun euskaltzainok, nik orain, bihotz-

bihotzez, honako hau zuei esatea: zorionak, Euskaltzaindia, zorionak, gure hizkuntzaren defentsan erakutsi duzun kemenarengatik, Gure euskara bigarren mailako hizkuntza bere etxean erdararen morroi izatera kondentatzen duen Espainiako Konstituzioa bere garaian irmoki eta adoretzuki salatu zenuelako, zorionak. Ez dakit orain baino lehen beste inork horrelako eskerronik erakutsi ote dizuen, euskaltzainok; nik neuk, behinik-behin, barruak agindu bezalaxe adierazi dizuet neurea, eta eginaz ez naiz damu.

Izan ere, gure hizkuntza erdarak suntsi ez dezan, zeinen garrantzikoak diren Juan Mari Lekuona edo beronen osaba On Manuel Lekuona bezalako euskaltzaleak! Zeinen garrantzikoak geure kultura aintzakotzat hartzen erakutsiko diguten aintzindariak!... Hala dio gaur hemen omentzen ari garen gure oiartzuar prestuak, bere osabaren omenaldirako esku-programan idatzitako biografia laburrean: “Kulturdun behar dugu izan, baina Euskal Herritik. Euskaldun behar dugu izan, baina kultura unibertsalera zabalik”. Hitz bikainak, benetan, denok goiburutzat hartzeko modukoak. Eta gaineratzen du: “Hau da Manuel Lekuonak utzi digun ondarea. Eta hau, berak egindako lan guztien mezua eta ardatza”. Bistan da Juan Marik, euskaldun guztiok bere osabarengandik jaso dugun ondare eder hori, berak ez duela inondik ere lardaskatu edo hondatzen utzi, baizik-eta gehitu, aberastu eta zabaldu egin duela, eta horretan diharduela egunero buru-belarri, etengabeko lanean... bere poema batean aipatzen den gure “errota zahar maitea”ren “zotin sikuak” leuntzen, Herriaren kultur aleak maitekiro xehetzen, arnasa bezain beharrezkoa dugun kulturaren ogia inori falta ez dakigun. Hitzak eskas ditut, eta esamoldea ere trakets; horregatik, bukatzeko, hauxe besterik ez dezaket esan: *zorionak*, Juan Mari. *Zorionak*, Euskaltzaindia. *Zorionak*, Oiartzun. Mila esker guztioi zuen arretagatik.

JOAN MARI LEKUONAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Oiartzun, 1988, Uztailak 30

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jon Iñarra, Oiartzungo Alkate jaun agurgarria; Mari Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako idazkaria; Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Oiartzungo zinegotziak eta gainontzeko agintariak. Euskaltzainkideak; Ospakizun honetara etorri zareten guztiak.

Agur denoi!

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiot Jon Iñarra alkate jaunari eta Oiartzungo herriari, Euskaltzaindiari egin dion harrera amultsuagatik. Egia esan, ez da lehenengo aldia. Orain dela sei urte ere, hemen izandu zen Euskaltzaindia Mendibururen bigarren ehun urte burua ospatzera etorria. Eta orain dela urtebete ere hemen ginen On Manuel zenaren hileta-elizkizunean.

* * *

Egun hauetako ospakizunek, Oiartzungo alkate jaunak egitaraeuan txit ederki esaten duenez, bi ardatz dituzte: Bata, On Manuel Lekuona zenaren heriotzeko lehen urteurrena gogoratzea, eta bestea, haren iloba Joan Mariren Euskaltzaindian sartzea ospatzea.

Bidezko izango da, beraz, bion aipamena gaur hemen egitea.

Joan Mari Lekuonak badu gaur bere aitabitxia, eta horren esku uzten dut Euskaltzaindian sartzeko dituen merezimenduez zerbait esatea. On Manueli buruz, bestalde, badakit euskaltzain berria mintzatuko dela bere sarrera-hitzaldian. Halaz guztiz, nik ere hitz batzuk zor dizkiodala iruditzen zait, euskaltzainburu eta kargu honetan haren ondorengoa naitzen aldetik. Besterik ez bada leudekeen oker-adituak argitzen laguntzeko. Eta eskertzen diot Oiartzungo herriari, horretarako aukera ezin hobea paratu baitigu.

Ez da ez dakienik On Manuel izan zela, neurri handi batean, herri-literaturan gorderik zeutzan ondasunen aurkitzaile eta zabaltzaile. Begi

ernea izan zuen, alegia, pitxi horiek ikusi eta argitara ateratzeko. Horretan aitzindari eta bide urratzaile izan genuen On Manuel.

Behin baino gehiagotan atera dudana adibidea da: On Manuelen aurkiketek gure Aita Salbatoreren gain izan zuten eragina hurbildik ikustea gertatu zitzaidan. Olerkari zen Aita Salvatore, eta Lizardiren olerkibidea segitzen zuen. Baina heldu zitzaion bide horretatik aitzinago jotzerik ez zuen aldartea edo muga. Bazirudien ahiturik zegoela harentzat iturri hori. Eta olerki-bide berririk ez zuen ezagutzen. Halako batean On Manuelen liburua *Literatura oral euskérica* (S. S., 1935) heltzen da Salbatoreren eskuetara. Hura mundu berria, hark zabaldu ziona! Eta horra berriz ere pilpil irakiten gure olerkaria. Salvatore Mitxelena *Arantzazu euskal sinismenaren poema*, 1949an atereak, asko zor dio On Manueli, batez ere aipatu dudana liburu hori dela medio. Olerkiak, inspirazio-leku berriak non egon zitezkeen antz emateko, asko lagundu zion liburu horrek, eta Salvatore berberak hala aitortzen zuen.

1950. urteko Doniane eguna, eta Iruñean. Koreako gerrak leher egin zuen eguna. On Manuelek Euskaltzaindian bere sarrera-hitzaldia egiten du. Han zen Azkue ere. Ni artean ez nintzen Euskaltzaindiko, baina ondo gogoan dut nola joan nintzen Arantzazutik hitzaldi hori entzutera (1).

Handik bi urtera, 1952, Maiatzak 23, Euskaltzaindiko nere sarrera-hitzaldia Bilbon. Bizkaitik kanpoko euskaltzainik ez zen inortxo ere agertu, salbu eta bat, On Manuel. Berak sinatua eta ondo gordea dut egun hartako diploma. Euskaltzainburuaren ordez sinatzen du. "Lekuona-tar Imanol" irakurtzen da bertan.

Hurrengo urteetan On Manuelek *Egan* aldizkarian orrialde-parrasta ederrik idatziko du eta Axularren *Gero*-ren edizio berria Euskaltzaindiaren eginduz prestatu ere bai (Zarautz, 1954).

Azkue hilez gero Inazio M^a Etzaide donostiarra izan zen euskaltzainburu hautatua; eta ondoren Jose M^a Lojendio, donostiarra berau ere. Karguaren iraupena berez bi urterako izaten da, baina azkeneko honek epea bete gabe utzi egin zuen. Ondoren, baina uste dudanez ez berehala, On Manuel hautatzen du Euskaltzaindiak euskaltzainburu.

60.go hamarkadan gaude. Edozeinek daki orduan gure Euskal Herriak gizarte-giro aldaketa nabaria ezagutu zuela. Indar berriak ere sortzen dira, lehen somatzen ez ziren bezalakoak. Giro berri honen ondorioz, gero eta

(1) Hemen esan behar da Euskaltzaindiko urgazle askoz lehenagotik zela On Manuel, Euskaltzaindiaren sortzetik beretik, alegia. Ikus *Euskera* I (1920), 15.

usuago datoz eskeak Euskaltzaindira euskararen batasun-arazoa erabaki dezan.

1968an betetzen ziren Euskaltzaindia sortu zeneko 50 urte. Urrezko eztaiak, beraz. Eta erabakitzen da Urriari, eta Arantzazun, Kongreso bat berariaz auzi honi buruz egitea, eta Koldo Mitxelenari agintzen zaio euskara batu horren egitasmoa edo aurre proiektua han aurkeztea eta eztabaidatzea.

Arazoa ez zen ttipikeria bat edo funsgabeko auzia. Hizkuntza batek, munduaren alderdi honetan kokaturik dagoen hizkuntza batek, ezin aurpegi eman diezaieke gaurko erantzukizunei, bere buruaren normalizapen-lana egin gabe duen bitartean. On Manuelek esaten zuen hitzekin esateko, normalizapen hori egitea ez da euskarak dituen aje guztien “panazea” edo sendabidea. Hori ere ez. Hori eginik ere, euskarak izango du nahikoa lan aurrera irteteko. Baina hori egiten ez duen bitartean, ez da aurrera irtengo.

Mitxelenak esaten zuen bera lehenago ez zela gehiegi arduratu normalizapen-problema horretaz, ez beronen garrantziaz jabetzen ez zelako, zabalbiderik ikusten ez ziolako baizik. Euskaltzale edo euskalari batek egin dezake egitasmo edo proiektu bat euskararen normalizapenaz. Baina hori alfer-lana da, gero egitasmo horrek zabalbiderik ez badu. Euskarak ez zuen orduan sarrerarik eskoletan. Euskal Herria nekazari-giro batean bizi zen. Euskaldunek beren eskualde edo euskalkiko euskara ezagutzen zuten, eta besterik ez.

Halaz guztiz, Azkue arduratu zen batasun-bide bat antolatzen, “gipuzkera osotua” deitu zuen bidea, alegia. Euskaltzaindiak, ordea, ez zuen sekulan bide hori erabaki; euskaltzainburuaren gauza bezala gelditu zen. Eta ez zuen arrakasta gehiegirik ere izan. Gipuzkoar ez zirenek esaten zuten: “gipuzkera baldin bada, berek erabil dezatela, gu ez gara gipuzkoarrak”. Gipuzkoarrek, berriz, “osotua” gehigarri horri ez zioten kasu gehiegi ematen, eta gipuzkera arruntean idazten zuten. Horiek hola, proposamen hori pixka bat bazterrerat utzia gelditu zen. Baina Mitxelena konturatzen da hirurogeigarren hamarkadan badirela indar berriak, lehen ez zeudenak, eta egiten du auziaren bir-planteaketa bat “gipuzkera” izen hori alde batera utzirik, baina gainerakoan Azkueren bidetik hurbil samar dagoena, eta hark izan ez zituen zabalbideak bere alde izango dituen.

Egin zen, bada, zorioneko Biltzarra. Bertan izan ziren, bai, eztabaida zaratatsu batzuk, batez ere H-aren alde eta aurka. Biltzarra bukatzera zihoanean gela batean bildu ziren euskaltzainak bakarrik, eta han idatzi zuten azken Agiria. Gela hartan bildutakoen artean ez zuen inork deskordiorik agertu. Agiri hori gomendio gisa emana dago eta Mitxelenak proposatutako batasun-bideari atea zabaltzen dio. Ikus **Euskera** (1968), 250.

Istilurik larrienak, ordea, gero etorri ziren, batez ere handik urte betera edo, Euskaltzaindiaren Agiri hori eta Arantzazuko Biltzarraren lanak ofizialki Euskaltzaindiaren agerkari den **Euskera**-n azaldu zirenean. Orduan hasten da zatiketa, baita Euskaltzaindiaren barnean ere. On Manuelek Euskaltzaindiko batzarrean lan bat irakurtzen du batasun-bide horri buruz bere desakordioa agertuz, eta segituan lan hori *Zeruko Argia* asterokoan argitaratzen da. Orduan Euskaltzaindia kinka larri batean sartzen da. Bestalde, On Manuelek berak esaten du kargu berritze-hauteskundeak egiteko garaia ere badela, eta egin daitezela eskatzen du. Egin ziren 1970eko Uztailean, eta horietan ni izan nintzen euskaltzainburu hautatua. Pentsatu zuten, nunbait, euskaltzainek euskaltzainburu berri bat behar zela egoera larri hartan. Neretzat ez zen bat ere gozoa, baina Euskaltzaindiak eskatzen zidanez gero, bihurgune hartan zerbitzu hori egin behar niola iruditu zitzaidan.

* * *

Kargu-aldaketa, berriz, 1970eko Urriaren 25ean ospatu zen Zuberoako hiriburuan, Maule-n, Sallaberryren *Chants populaires du pays basque* liburuaren mendeurrena ospatzearekin batera. Han izan zen On Manuel, eta gauzak anaikiro eta bakerik ederrenean egin ziren. Berak egin zuen bere hitzalditxoa eta nik neurea. Ikus **Euskera** (1971), 114-123.

Aldaketa egin ondoan ere etortzen zen On Manuel batzarreetara eta nik behin eta berriz eskatu nion etortzeko, zeren eta eritzi batekoak eta bestekoak han egonik, horrek mesede egin zezakeen denon jarrerak hurbiltzeko. Baina handik laster uzten dio batzarrera etortzeari, beste batzuek bezala. Esan behar da une txar batzuk pasatu genituela. Eskerrak Iparraldeko euskaltzainen laguntasunari; horiek, Lafitte buru zutela, txin-txo asko etortzen ziren batzarreetara eta beren atxikimenduaz asko egin zuten kinka txar hura gainditzeko.

Hortik zabaldu zen bota egin genuela On Manuel Euskaltzainditik. Hori ez zen bat ere hala. Gainera Euskaltzainaren izendapena bizi guztirako da. Euskaltzaindi barruko karguak, berriz, alda daitezkeenak dira, Euskaltzaindiko arautegian jarririk dauden legeen arabera.

Bai. Urte txarrak izan ziren. Koldo Mitxelenak aitortzen zuen adiskide on asko galdu zituela zorioneko batasun hori dela eta ez dela.

Gaur itsas haserre horiek baretu direla iruditzen zait. Eta bai batzuen, eta bai besteen alde ere, esan behar da denok eritzi bereko ez izatea normala dela gizonen artean. Inori ezin ken dakiok bere eritzi propioaren jabe izateko eskubidea, ez eta instituzioari ere bere onerako on dena iruditzen zaiona egitea, baldin legeen arabera egiten bada behintzat.

Bestalde, arazoa ez zen guti gorabeherakoa, axola handikoa baizik, hots, euskara, idatzizko zereginetarako araupetzea. Euskal Herriak Eus-

kaltzaindiari bere sortze-egunean eskatu ziona zen, eta honen arautegian zeregin nagusienetako bat bezala aipatzen dena, eta oraindik erabaki gabe zegoena.

Horrelako auziak planteatzen direnean, ia beti sortzen dira sesioak eta ikuspuntu desberdinak. Katalanaren batasun-problema sortu zenean, esate baterako, aski sonatuak izan ziren Pompeu Fabra eta Mosen Alcover-en arteko eztabaidak. Baina sesio batzuk sortuko diren beldurrez, egin behar dena egin gabe uztea ere ez da arrazoizko. Neurri handi batean Euskaltzaindia auzi hori erabakitzeke sortua zen eta.

Gaur, esan dudan bezala, istilu horiek gaintitu dira. Baina iruditu zait esan ditudanak noizbait esan beharrekoak zirela, gauzak laino artean uztea txarrago baino ez da eta. Gauzak diren bezala esatea bezalakorik ez dago.

Gainerakoan, guk beti gorde izan diogu On Manueli geure estimazioa. Euskaltzaindiko laugarren euskaltzainburua izan zen. Batasunaren auzi hori dela eta, urte korapilatsuak tokatu zitzaizkion, baina hori ez da, inolaz ere, zor zaion estimazioaren gutigarri.

* * *

Eta beste gabe, pasa gaitezen ospakizun honen bigarren ardatzera: Joan Mari, On Manuelen iloba denaren Euskaltzaindian sartzea ospatzera. Baina honek, esan dudanez, badu bere aitabitxia, eta hark egingo du bere garaian beronen aurkezpena.

ERDI-AHOZKOTASUNAREN LITERATUR ESTILOAZ

Oiartzun, 1988-VII-30

Juan Mari Lekuona

Nire aurreko euskaltzain osoaren oroigarri

Andere eta jaunok:

Nire aurreko euskaltzain osoaren oroipena egin behar eta, egoera nahiko berezian ikusten dut neure burua, osaba nuenez nik lekua hartzen diodan Manuel Lekuona, gure aitaren anaia. Eta odolaren lotura ezezik, eta bokazioan, langintzan eta hamaika gustamoldetan genuen kideasuna ezezik, badut harekin beste zerikusi bat ere, adierazgarri xamar dena: osabak zuen espezializaziotik izendatu nautela euskaltzain oso, literaturatik batez ere.

Lotura horiek guztiak argi eta garbi esaten digute, nire gaurko oroipen hau ez dela izango egun bateko oroipen eta aipua bakarrik; eta ez dela izango ere gaur zuen aurrean hitzez bakarrik egina: osaba eta biok nahiko bat izanak esan nahi du, nire lanetan —eta bereziki ahozketasunaren inguruan nabilenean— bai eskolaz eta bat apetzat gogora ekarriko dudala beti osaba; eta esan nahi du, bestalde, idazterakoan ere, orain arte bezala, eta bidezko denez, oroitaraziko ditudala beti haren metodoak eta kultur jarrerak.

Horrez gainera, osaba Manuelen berri emana dizuet, haren omenaldia dela eta, esku-programetan, antolatzaileek hala eskaturik, ezarri ditudan argibideetan. Idazkiz emanak ditut osabaren bizitzako aroak, lekuan lekuko kultur joerak eta eskakizunak, han eta hemen osabete zituen lanak eta idazkiak. Beraz, ez daukat horrelakorik hemen zertan aipatu. Baina badut gauza bat, une honetan erantsi nahi nukeena. Eta zera da: “Etxetxiki”-tik datorren Iñarra-Lekuona familikoak, hiru belaunaldi bagarela Oiartzunen, euskal idazleak eta euskararen inguruko irakasleak. Eta ehun urtez iraun duela gure familiakoen langintzak euskal letretan.

1. *Migel Antonio Iñarra Mitxelena (1864-1898)*: “Etxetxiki”-ko semea, 1864ko Irailaren 28an jaioa. Hamazazpi-hemezortzi urte arte meagizon izan zen, Sanartazuko meakan (San Narciso, Irun). Apaizetarako ikaske-

tak Urnietan hasi zituen, Antia apaizarekin. Eta baliteke, ez dakit ziur, Antiarengandik jaso izana Iñarrak euskal gaietarako gogo. Olerkari sarizatua izan zen: Donostiako Euskal Jaietan lehenengo saria jaso zuen 1891an. Azkueren laguntzaile izan zen “Euskalzale” aldizkarian. Eta lekeitiar gogoangarri hark esanda dakigu, Nafarroako Diputazioak euskara erakusteko irakasle bat izendatu behar eta, konkurtsa bat eratu zuela, eta M. A. Iñarra izan zela irabazle. Honela dio Azkuek Migel Antonioren hil-oroigarrian: “Nafarroako Ekautak beregana deitu orduko, eroan dau Jaunak, toki oba batera” (1). Guzti hau 1898an izan zen. Gizon honek eman zion hasiera gure familiak euskal letretarako izan duen atxekimentuari.

2. *Manuel Lekuona Etxabeguren (1894-1987)*: Osaba Manuelek oso umetandik etxean nabaritu zuen Migel Antonioren ondorena eta zantzuak: liburuak, oroitzapenak eta izpiritua. Osabari buruz, gauza bakarra adierazi nahi nizueke: “Idaz-lan Guztiak” liburuetan ageri den ardatza.

Antropologiatik, etnologiatik eta historiatik ezagutzen du hemengo gizona, hemengo herria, hemengo kondaira. Eta ezagutza honen arabera sakondu dizkigu bai euskal literatura, bai euskal artea, bai euskara. Eta haren ikaskuntzen azpi-azpian, beti ikuspegi iraunkor eta errepikatu bat legoke: euskal kultura, euskal nortasuna. Agian ez zen iritsi funtsezko pentsamentu eragile hori hitz bitan laburbiltzera. Baina ardatz bera du beti haren pentsamoldeak. Batasun horretan nabarmenduko nuke azken batean osaba Manuelen pentsamoldea eta langintza.

3. *Hirugarren belaunaldia*: Senide eta lehengusoak nituzke hemen gogoan. Eta neronek akademiko aulki-hartzea dudanez gaur, gauza bat bakarra aipatuko nuke neure buruaz kontestu honetan: barren-barrendik eskertzen diodala Euskaltzaindiari erakunde honetako euskaltzain oso izendatu izana. Eta gauza bera Oiartzungo herriari, nire sarrera-hitzaldia hemen egin dezadan erraztasun, gogo eta arreta sutsuak agertu dizkidazuelako. Dela Euskaltzaindiak, dela Oiartzungo Udalak, dela Probintzia mailako eta Euskal Herri mailako ordezkariak, eta gainerako pertsona guztiek, har bezate nire eskerrik beroena.

Eta bereziki eskertzekoa nire aldetik, euskararen arloan gure familiarri egiten diozuen aitorpena, bai Euskaltzaindiak, bai Oiartzungo Udalak, bai Diputazioak eta bai Eusko Jaurlaritzak oso gogoan izan dutelako, Iñarra-Lekuona familiakoen ekarria euskal letretara.

Gauzak horrela ulertuz eta azalduz, badakit hau dela, besteak beste, osaba Manueli buruz, nire aurreko euskaltzain osoari buruz, nik gaur, hemen Oiartzunen, egin dezakedan oroipenik eta aipurik bereziena.

(1) R. M. AZKUE: *Miguel Antonio Iñarra*, in “Euskalzale”, 2(1898), 158-159 or.

Eta orain, nire aurreko euskaltzain osoaren aipamena egin ondoren, irakur dezadan zuen aurrean nire sarrerako mintzaldia.

ERDI-AHOZKOTASUNAREN LITERATUR ESTILOAZ

Marcel Jousse-k, bere *Style Oral* liburua dela eta (2), euskal ahozko-laritzan arrasto nabaria utzi duen autore honek, beste liburu batean giza espresioaz ari delarik, hiru estilo bereizten dizkigu: mimetikazko estiloa, ahozko estiloa eta idatzizko estiloa (3).

Sailkapen hau, eremuak eta esparruak bereizteko sistema bezala, ongarri dela esan behar, giza espresioaren arlo desberdinak zehazten direnez. Gehiago oraindik: autore horren ildotik hemen ere ahozko eta idatzizko estiloak bereizi izanak, eta ahozkotasuna aztertu eta balioztatze-ko dauden metodo egokiak erabili izanak, aurrerakada bat suposatu zuten euskal ahozkotasunaren ezagutzan eta lanketan. Hortik hasia dugu umotuagoko euskal ahozko-laritza oraintsukoa. Eta bide bat egiten ari dela esan behar egunotan ere gure ahozkotasuna, azterlari berriak, beste lanmetodoak erabiliz, gaia zabalago eta xehekiago erakusten ari zaizkigunez (4).

Sailkapen horrek, ordea, badu puntu ilunagorik. Eta zera da: estiloak batetik bestera permeatzen direla eta irazitzen, eta bateko nahiz besteko osagaiak elkartuz, bien arteko estiloak edo sortzen direla, muga dauden estilo bestelakoak. Kontuan hartu behar ditugunak, noski, eta bere neurrian balioztatu beharrekoak gainera.

Mimetikazko estiloaz ezer ez dugu esango hemen, zeharka ez bada, gestuen eta imintzioen antropologia gure arloa ez denez. Gu hemen ahozko eta idatzizko estiloen mugaldea ibiliko gara, bateko nahiz beste-ko osagaietaz ehotzen den estiloari buruz ihardunez. Hau da, erdi-ahozkotasun baten ezaugarriak azpimarratzen ahaleginduko gara.

(2) M. JOUSSE: *Le Style oral rythmique et mnemotechnique chez les Verbo-moteurs*, "Archives de Philosophie", "Gabriel Beauchesne", Paris, 1925.

(3) Id.: *La Manducation de la Parole (L'Anthropologie du Geste, II)*, "Galimard", "Imprimerie Floch à Mayenne", 1975.

(4) J. M. LEKUONA: *Ahozko euskal literatura*, "Erein", Donostia, 1982, Bibliografia, 11-17 or. Gerrondoko idazlanak arakatzuz gero, nahiko garbi ageri da, iturriak, azterketak, sailkapenak, metodoak eta abar berritzean, herri-literaturari buruzko ikaskuntzek dagiten aurrerakada, bakoitzak bere sailean.

Horretarako, gaiaren zenbait alderdi nagusi azalduko ditugu:

1. Idazkeraren erakus-aukera edo "muestreo" bat.
2. Idazkeraren literatur fenomenologia.
3. Erdi-ahozkotasunaren estiloaz.
4. Ondorio orokorrak.

Lau urrats hauetan datza gaurko mintzaldi honen saiabidea.

I. IDAZKERAREN ERAKUS-AUKERA EDO "MUESTREO" BAT

Ahozkotasunean bizi izan diren jendeak, eta gure kultur ingurune jakinaz ari garelarik, bai banaka eta bai taldeka, idazkiez eta izkribuez baliatzen hasten direla gauza garbia da. Eta bilakabide honen hari nagusiak ematea, idazkera noiz eta nola sartu zen aditzera ematea, guretzat ezinezkoa bada ere (eta ez hain beharrezko gainera gure helburuetarako), aipa ditzakegu zenbait adierazpen baliotsu, gure gaiaren argigarri direnak, eta mintzaldi honi apio eta sarrera bat emango diotenak.

1. Eskuizkribuak

Gure gaiaren harira, argitalpenak badira ere garrantzirik haundiena dutenak, eskuizkribuen munduko xehetasunek ere badute, idazkeraren fenomenologiari buruz, kontuan hartzeko den nabardurarik. Zenbait eratako eskuidatziak aurkez ditzagun.

1.1. *Norberaren gordailu kutun direnak*

Hala zen, adibidez, Oiartzungo "Alkate Xaharrene"-ko neskatxak "berekin zuen karteratxoa, beste bertso berri zenbaitekin Santa Klararen koplak kopiatuta gordetzen zituena, isilpean kantatzeko" (5).

Eraginik txikienetarikoa du jokalmolde honek, bai testuen produkzioan, bai kontsumoan eta bai zabalkundeetan. Norberaren mailan bukatzen da testuon eragin-indarra.

(5) M. LEKUONA: *Bi antzerki ta itzaldi bat*, "Kuliska Sorta", 56 z., "Itxaropena", Zarauz, 1965, 108-109 or.

1.2. *Familia barruko altxor direnak*

Aipa ditzagun, esate baterako, Leizako Uhalde familiak idatzirik zeuzkan Pasioko bertsoak eta errosarioko misterioen iruzkinak, 1835ean María Josefa de Uhaldek idatziz jarriak (6).

Testua ez da herri-mailakoa. Elizgizonen batek idatzia izan zitekeen. Batek bakarrik erabiltzekoak ziren, agian, baina errosarioko irakaspenek pentsa-arazten ere digute familiaratean erabiltzen ote ziren. Eta transmisioa, berriz, norberaren gordailu kutunak baino zabalxeagoa izan zezakeen testuak, famili barruan gutxienez. Hala ere, ez da literatura sailekoa idazki honetan ematen den dotrinazko iruzkina. Aldiz, herri-poesiatiak nahiko hurbil daude Pasioko bertsoak.

1.3. *Ofiziokoan artean erabilitakoak*

Argibide ona damaigu hemen Oiartzunen gertatutakoak: “Erreal biko kai-erkuadernotxo batean kuriosoki birridatzia, erriko jostundegi batera etorri zan...” (7). *Santa Jenobebaren Bizitza*, Juan Kruz Zapirainek, Gregorio Arruek euskeratutako liburu batetik gaia hartuz, bertso berritan paratua (8).

Jostundegitik etnografiara irago zen, eta etnografiatik liburuska izatera. Estiloz bertso-papera zen, baina ezin ahaztuzkoak ditugu ofiziokoan artean eginiko erabilkera eta ahoz-ahozko transmisio horiek.

1.4. *Arrastoen bidez hitz biziko testuak adierazten*

Udarregiren sistemaz ari gaituzu. Bertso-papera ateratzera beharturik zegoen eztabaida baten eskakizunez. Idazten ez zekenez, berak bere

(6) *Jesusen Pasio Doloroso edo Arrosarioco Bost misterio Dolorosoac*. Lehendabizi misterioen iruzkina dator, eta ondoren guruzbidea bertsoan. Eta azkenean honela dio: “La escribió Josefa de Ugalde en esta Billa/ de Leyza en los Años de/ 1835”. Pasiok 197 estrofa ditu. Eta eskuizkribua Aresotik etorri eta Donostian bizi den Arregitarren familiak gordetzen du. Familia batek dituen eskuidazkien artean, ikus J. M. SATRUSTEGUI: *El cantar de ‘El Judío Errante’*, in “*Fontes Linguae Vasconum*”, 7(1975), 339-361 or.

(7) M. LECUONA: *Genoveva de Brabante, por el “bertsolari” Juan Cruz de Zapirain*, in “*Trabajos del Laboratorio de Eusko-Folklore*, Vitoria, 1929. III-XII or. A. ZAVALA: *Zapirain Anaiak*, in “*Auspoa*”, 123-124-125 zz., “*Izarra*”, Usurbil, 1975, 61-132 or. “*Sorabillane*”-koen jostundegian, “*Tronpeo*” baserrian, Oiartzunen, neronek entzuna.

(8) M. LEKUONA, *ibid.*

kasa marrazko adierazpide berria asmatu zuen, izkribukera berria. Hala dio A. Zavalak:

“Bertso sumatzen, bere gisa, garia jotzeko kuartuan aritzen zan, ta, bertsoa sumatu-alean, tella-puska batekin paretan arrastoa egiten zuan... Gero... (idazkaritza egiten ziona etorritakoan) garia jotzeko kuartora joaten ziran, ta an, arrastoaren aurrean, Udarregi sumatutako bertsoak esaten hasten da, ta Jose Txiki eskribitzen. Gero, onek betetako papera, inprentara eramaten zuten” (9).

Gogoan hartzeko gertakizuna hauxe: idazkeraren legez eta moldez ari beharrak eramaten du bertsolaria, idazkeraren kideko sistema bat, bitxia bezain harrigarria, asmatzera. Ahozkoaren eta idatzizkoaren artean bertsolariak amore dagio idazkerari, guztizko argitasunez erantzun praktikoko bat aurkituz.

Adibide soil hauek, zabalagoko ikuspegi batzuren aurrean jartzen gaituzte: idazkeraz baliatzearen aurrean, bai norberaren mailan, bai familiaren eta taldearen mailan, bai ofizioaren lanordutako mailan. Lumaz idazten jakin beharra zegoen, argitalpenen itxurapean zetorren joera berriari erantzuteko. Eskema metrikoak errespetatuz idazten ikasi aurretik, ortografia konbentzionala ikasi aurretik, eta *abc* sistema ikasi aurretik ere, eginik zegoen idazkeraren kultur hautapena.

2. Argitalpenak

Eskuizkribuek baino areago eragiten dute argitalpenek estilo berriago baten sorkuntzan. Testu inprimatuetan hiru modalitate aukeratuak genituzke: bertso-paperak, aldizkaritako testuak eta liburuskak.

Moldiztegian inprimaturiko testuak, tirada bat izaten dute, eta ale asko izan ohi dira eskuarki testu bakoitzarenak. Honek zabalkunde ezin hobea dakarkio testugintzari, leku askotara iristeko, eta denbora luzean irauteko ahalgoa paperak eskuratzen duenez. Eta publikotasuna ere hartzen dute idazlanek argitaratzeari esker, modako joerak bermatuz eta beste zaharragoak baztertuz. Hitz batean, estilo berri baten ezaugarriak markatuz.

(9) Id.: *Udarregi bertsolaria*, in “Auspoa”, 56 z., “Izarra”, Donostia, 1966, 54 or. “Bañan Jose Txikik joaterik etzeukanean-edo, Udarregi bera jeixten zan Usurbilla, eskuan makil bat artuta, eta paretako arrastoak makillan ekartzen zituan. Ta makillari begira esaten zizkion bertsoak Jose Txikiri” (56 or.).

2.1. *Bertso-paperak*

Kontsumoko herri-literatura bat hasten zaigu bertso-sorta idatziekin. Eskuizkribu izan behar zukeen pieza horrek, erosleak ditu, eskabide bat dago, eta handik eta hemendik eskaintza bat egin behar zaie erosle eta irakurleei. Merkantzia bat izatera iristen da bertso-papera, ferietan, mezon-dotan eta jendea bildu ohi den lekuetan, eta ateondoan ere bai, saltzen delarik (10).

Jokoan sartzan dira autoreak, argitaletxeak, saltzaileak, harreman jakinak direlarik horien artean, testugintzan bere eragina duten harremanak. Eta aurkezpen jakineko produktoa eskaintzen da: kantatua, estrofa luzeetan idatzia. Eta gaiak ere oso jakinak ditu: ahozko estilotik asko duen publikoak gogoko dituenak dira, kroniketatik hasi eta lirika indartsurainokoak. Gure artean eraskotara landua izan den mugabarru idatzizkoa (11).

2.2. *Aldizkariak*

Aldizkarietan datorren bertso-sorta, edota ipuin herrikoia, ez da bertso-paperan datorren bezalakoa edota herriak kontatzen duen antzera idatzitako eleketa. Ez dira protagonismo bat duten piezak, baizik eta apaingarri, entretenigarri eta dibertigarri datoz, beste "sakonagoko" idazlanen erdian. Aldizkariak berak du lehenetasuna, eta testu herrikoiei horien artegintza beste helburu batzuen zerbitzurako jartzen da.

Bestalde, aldizkariak berak ikuspegi mugatuak eduki ditzake, bai ahozko testugintzari buruz, bai autore jakinei buruz, bai literatur politikari buruz. Eta guzti hauek kanpotik baldintza dezakete, axalean bederen, herriarengana iristen den testugintza, duda-mudakoa gerta litekeelarik horrelako aldizkarien laguntza eta ekarria herri-literaturan. Hala ere, beti izan dira aldizkari espezialduak, lan ederra utzi dutenak arlo honetan, edota espezialduak ez izan arren, lan estimagarria egin dutenak bertso berrien eta ipuingintza tradiziozkoaren mesedetan (12).

(10) Id.: *Bosquejo de historia del bertsolarismo*, "Añamendi", 37 z., Zarauz, 1964.

(11) Id.: *Bertso paperak*, in "Jakín", 14/15(1980), 115-132 or. Batez ere ikus "Auspoa" bilduma, 1-196 liburuak, salbu kontaerak, teatroak eta abar.

(12) Id., *ibid.*, 129-131 or.

2.3. *Liburuskak*

Liburuska edo opuskuloetara iristean, autoretzak luze-zabal berezia hartzen du. Ez da iadanik nahikoa testua bera bakarrik eta bere soilean. Liburuak autorearen ezagutza dakar: beronen bizitza, lan osoa, artista maila, eginkizun artistikoa eta abar balioztatzea. Norbaiten langintza da nabari, nortasun horrek gero eta lehentasun haundiagoa bereganatzen duela.

Lehen tradiziozko altxorra eta bilduma zena, orain antologia bilakatzeko joera dago. Antologiak ordezkutzen du, lehen buruz gordetzen zen altxorra. Eta generoak bereizten hasten gara, joera nagusien historia egiten, eta pertsona jakinen ekarria bereizten, konparatzen, mailakatzen eta sailkatzen. Eta autoreen inguru eskolak eta mugimentuak aipatzeari ere ekiten diogu, testuetan oinarri hartuz, ikerkuntza aurrera eramaten delarik. Eta zerbait berria mamitzen zaigu, ahozkotasuna literaturan eta literatura ahozkotasunean errefraktatzen eta barneratzen direnean.

Erakus-aukera edo "muestreo" honek erakusten digu, ez bakarrik gaiaren zaila eta korapilotsua, baizik eta zeintzuk diren punturik arretagarrienak erdi-ahozkotasunaren eta literaturaren artean aztertu beharko liritekeenak. Aipamen eta bereizketa bat egin dezagun:

a) *Alderdi historikoa*.—Guk ikuspegi ongi hornitua dugu XIX-XX mendeko herri-literaturaz. Hala ere, lehenagoko daturik ere bil liteke, batez ere baladetatik abiatuz. Ez dugu ahaztu behar, "colportage" deituriko literatura, edota mertxeroena eta kinkilariena, XVII-XVIII mendeetan nahiko zabaldurik dagoela Frantziako zenbait lurraldetan, eta horietako piezak euskarara itzuli-ta daudela. Eta orain arte egin duguna baino zerbait gehiago zehaztu litekeela XVII-XVIII mendeetako baladen eta eleketen historia. Baina gure gaurko arlotik kanpo dago ikuspuntu hau.

b) *Alderdi soziologikoa*.—Nola gero eta ugariagoa den alfabetatzearen bilakabidea, gizabanakoa eta gizartea bera ere eraldatzen direlarik. Gertaera progresiboa da. Gero eta gehiago dira irakurtzeaz eta idazteaz baliatzen direnak. Eta honek aldaketa soziologiko bat dakar erdi-ahozkotasunaren sorkuntzan, erabilkeran eta transmisioan. Baina bilakabide soziologikoa ezin izan gure gaurko eginkizuna, bistan denez.

c) *Alderdi antropologikoa*.—Kantari eta esatari izanez bizi zen artistak psikologia aldatu egiten du. Idazkerari esker, idanik ez du beharrezko interpretari izatea jendaurrean. Eta ahalmen eta prozedura mnemoteknikoak beste era batera lantzen ditu. Ospakizun eta festa giro kolektibotik bakarkako idazlanetara bihurtzen du bere eginpidea. Baina alderdi hau, denik eta interesgarriena jotzen bada ere, eta euskal ahozkotasunean fruitu estimagarriak eman dituen, ez da guk gaur kontuan hartuko dugun saihesta.

d) *Alderdi estilistikoa*.—Hau legoke azkenean, eta berori dugu guk hemen azpiragotik harrotuko duguna. Bertso-papera eta liburusetako estiloa batikbat. Ez agian tradiziozkoa eta literatura kultoa bezain landua, baina bai ugaria gure artean, eta benetako garrantzia hartu duena.

II. IDAZKERAREN LITERATUR FENOMENOLOGIA

Erdi-ahozkotasunaren gertakizuna sakonagotik ezagutzeko, bide ego-
kia iruditu zaigu, idazkerak sorturiko fenomenologia bere alderdi desber-
dinetatik aurkeztea, horrela, idazkera zein baldintzetan egiten den ikusiz,
estiloaren berezkotasunak era egoki eta tajutuan uler eta baliozta ditzagun.

Hitz bizia delako hori grafia soil bihurtzeak, eraldaketa bat dakar
testuan bertan, autorearen nortasunean, testugintzaren kontsumoan, idaz-
lanen transmisioan. Eta orain estilo berriago honen azpiegitura xehekiago
irudikatu nahi genuke.

1. Testuaren ezaugarriak aldatzen dira

Testua ahozkoa izatetik idatzia izatera eginiko aldakuntzan, ahozko-
tasunaren zenbait ezaugarri galtzen diren heinean, idatzizkoaren beste
zenbait eskuratzen dira, testugintzaren nolakotasuna eraldatuz.

1.1. *Idatzizko testua beti bera da, aldaezina, iraunkorra*

Ahozko testua, idekia esaten diogun hura, pieza bat baino gehiago-
ren osagai izan liteke, tradiziozko klitxe eta estrofa berak pieza bat baino
gehiagotan agerzen direnez. Legezkoak dira testuen arteko kutsadurak,
testu zeharrekin egindako eraikuntza berriak. Zilegi da tradizioa, usario-
ren lege barruan jakina, batek eta besteak erabiltzea.

Idatzizkoa, bestalde, testu itsia deiturikoa dugu. Bertsio bat bakarra
onartzen du eskuarki. Eta papera dugu beti testuaren arau eta lege
seguruena. Kantore bati memoriak hutsegingo balio, idazkian luke, noski,
berriro haria hartzeko modurik egokiena. Lanaren jatorrizkotasunak eta
orijinaltasunak ikuspegi berria bereganatzen du. Testuak erabat berria
izan behar du, idazmunduaren lege barruan jakina, beste pieza bat asma-
tzen eta ehotzen denean.

1.2. *Buruz ikasi beharrik ez du*

Piezaren iraunpenerako oroitzapena beste biderik ez zenean, artistak kontuan zuen beti mnemotekniaren arazoa testua sortzerakoan. Kontuan zituen, adibidez, estrofatik estrofarako loturak errepiken bidez eginak, sekuentzien egitura paralelistikoak, kontzeptuen kontrajartzeak, eskema erritmikoen barruan dauden tinkapen akustikoak, hoskidetzak, isuri foni-koak eta abar.

Oroitzapenarekiko zerikusi hau ezkutuago geratzen da testu idatzian. Iadanik ez da beharrezko prozedura guzti horietaz baliatzea, memoriari laguntzeko behintzat. Beraz, estetikagatik erabil daitezke eskuarki aurrerantzean. Eta galdu ere gal litezke eta ahaztu, batez ere horrelako baliabi-deak, ahotan dabilzan eta modan dauden eredueta, erabiltzen ez badi-ra. Adibidez, euskal ahozketasunak bere-bereak dituen errepikak egiteko prozeurak, ezkuta litezke aurrerantzean, memoriari guztiz beharrezko ez zaizkionez, eta beti ikusten ere ez denez berorien balio estetikoak.

1.3. *Bapatekotasuna galtzen du*

Ahozkojaritzak, inprobisazio edo bapateko ihardunean ari denean, asko du mimetikatik eta entzuleen eta ingurugiroaren aldetik. Ez da berdín bertso-saioa zuzenean entzutea eta gero haren transkripzioa irakurtzea. Bertsolarien keinuek, entzuleen eta plazako mila zirkunstantzien eraginek osatzen dute espresio poetikoaren maila betea. Eta gerta liteke, idazkiz bakarrik ezin ulertu izana bapateko bertsoen esanahia. Edota gerta liteke, bi kantuk entzuterakoan efektu bera guri egitea era irakurtze-rakoan alde handia ikustea saio baten eta bestearen artean.

Testu idatziekin, berriz, ez da horrelakorik. Paperak du erreferentzia ia bakarra, esanahiaren aldetik behintzat. Testuak, une eta leku jakinak ezezik, ingurune geografiko eta historikoak gainditu behar ditu, halako unibertsaltasun bat hartuz.

1.4. *Xehetasunetan irabazten du*

Ahozketasunaren beste ezaugarri bat "ideien eta irudien mugimendu azkarra" baldin bada (13), idazkerak honi beste jokabide logikoago eta zehatzago bat kontrajartzen dio.

(13) M. LEKUONA: *Literatura oral vasca*, in "Idaz-lan Guztiak", 1 t., "Kardaberaz Bilduma", 22 z., "Eset", Gasteiz, 1978, 267-269, eta 276 eta hur. or.

Ez ditu hain maite estilizazio prozedurak, koerentziarik gabeko loturak irudien eta mezuen artean. Hausturarik gabeko estiloa da, eta behartu gabea. Xehetasunetan zehatza. Logikan errurik gabea. Eta piezen egituraketan ere eraikuntza oso baten eitea gordetzen duena ahal den neurrian.

1.5. *Bertsio bakarra izaten da*

Ahozko tradizioari dagokion kantua polimorfoa da, eta kantuak ez du bizibiderik bertsio askotan osaturik ez bada. Eta ez du indar bera bertsio bakoitzak tradizioan, memorizatzaileen oroipen-indarra berdina ez den antzera; edota generoen usuarioak leku guztietan indar bera ez duen antzera; edota testuen jatorrizko euskalkitik beste euskalki batera iragozkeak iraun-indar bera ez duen antzera.

Testu idatziak, aldiz, badu kemen bat, badu eitte bat, badu tajukera bat, gizabanakoen eta gizataldeen baldintzek ere eraldatzen ez dutena. Eta testuak izaera objektibotik badu, beste baldintza guztien gainetik dagoen baldintza objektibotik, alegia.

Hitz biziaren adierazpen grafikoa dugu idazkera. Eta ahozkotasunean hotsen memorizazioan bizi zen testua, idazterakoan tresna bihurtzen da, ikusmenezko zeinuen bidez testua jasotzen duen tresna, beti bera, erabilgarria, iraunkorra, ugaria, memoriaren askatzailea, interpretatzailearik eskatzen ez duena, zehatza eta fierra. Idazkerak dakarren lehenengo aldaketa nagusia testugintzaren munduan.

2. **Autoreak nortasun berria hartzen du**

Egileari buruzkoak lirateke idazkerak ezarritako beste aldakuntzak.

2.1. *Anonimotasuna galdu eta autoretza jasotzen du testuak*

Tradiziozko kantuak ezabaturik eta galdurik dauzka autorearen zantzu zehatzak. Ez du inor jakinik egile, eta autoretza ezagutu beharrik ere ez du, noski, testuaren ñabardurak balioztatzerakoan, kolektibitatearen zertzeladek garrantzi haundiagoa dutenez eskuarki autorearenak baino. Autorerik ez bait litzan funtzionatzen du ahozko testugintzak.

Ez hala, ordea, idazkeraren munduak. Hemen-honetan, autorearen luzapen duzu testua. Egileak izenpetzen du idazlana. Dena idazlearen galbaean ehotzen da. Tradiziotik ere baduke, baina autorearen haritik eta

ondaretik beti. Joera sozio-kulturalak ere autorearenak dira, testuek kokamen historikoa badutelarik. Zer esanik ez egilearen nortasunak ezartzen dituen izaerak, gustamoldeak, iritziak, sentiberatasunak eta gainerako dohai artistikoak.

2.2. *Idazle izatera lerratzen da artista*

Plazagizonaren alboan, idazle huts den artista sortzen da. Gogora ditzagun Bordel bat (14) eta Graziano Anduaga bat (15) lanordutan ere papera eskuetan zutelarik, edota azkar idazteko asmoz, aritzen zirenak, bururatzen zitzaizkien bertsoak ahaztu baino lehen kopiatzekotan. Eta antzeko bidetik hartzen dute bertso-jartzaile huts direnek ere.

Ez dute festa paratu beharrik. Idaztea da beren lana. Eta honek eramaten ditu idatzizko ereduak ezagutzera, egitura aberatsagoak eraikitzen, garaiko eskakizunei erantzun bat ematera. Eta ahaleginduko da literatura idatzian eskolatzen, nahiz eta urria izan berak jaso dezakeen idaz munduko prestakuntza eta eskolatzea.

2.3. *Interpretari eta gordailu bizi izatea galtzen du*

Piezaren egilea iadanik ez da nahitaezko antzeslari, kantari, hizlari, errezitatzaile. Ez du zuzeneko harremanik entzulegoarekin. Gero eta gutxiago du mimetikazko estilotik eta ahozko estilotik.

Iadanik ez da "liburu bizia", liburugilea baizik. Iadanik ez da tradizioaren gordailu berezi, norberezko etorriaren sortzaile baizik.

Eta herri-kontzientziaren interpretari den aldetik, beste maila batekoak ditu kolektibitatearen aitortpena eta onarpena. Eginkizun sozial desberdina du idazle den aldetik: pluralagoa, libreagoa, kultur proiektu berriago baten eusgarri izan ohi delarik.

Autoretza tartekatzen den heinean, eta idazletza ofizio berezi egiten den neurrian, artistaren nortasunak alderdi semantiko berria dakarkio

(14) J. M. SATRUSTEGUI: *Bordel bertsulaia*, in "Auspoa", 45-46 z., "Izarra", Donostia, 1965: "Lur iraultzen ari bazen ere, paperra eta luma sakelan zituen beti" (28 or.).

(15) L. VILLASANTE: *Itzaurrea*, in "GRAZIANO ANDUAGA: Egunsentiko txoria ta beste bertso asko", in "Auspoa", 30 z.: "Soluan, itoian (ikulluan), oian nunai (egiten ditu bertsoak). Egun danetan ezta izaten berdin. Eria beti ezta izaten. Eria danian buruz asmatu eta gero eskribiduaz joan bear..." (12 or.).

testuari eta, bestalde, zeregin berrietan osabetetzen da testugileak bere gain harturiko eginkizuna.

3. Kontsumo-legeak ere eraldaturik daude

Paperak eskuartean eduki ahal izateak ere, zeharo aldatzen du testuen erabilkera. Eskuera dagoen zerbait da, irakurtzen ikasi duen edonork bere gogara daukana, nonahi eta noiznahi, eta nahi adina bider, dasta litekeen artegintza.

3.1. *Balia daiteke gizabanakoa*

Kantariak eta esatariak, ihardun ahal izateko, arrazoibide kolektibo bat behar izaten zuten, gertakaria kolektibo bat. Baina irakurlearengan ez dago horrelako loturen beharrik, bakoitzak nahi eta ahal izatea besterik. Norberaren motibaketak dira agintzen dutenak, irakurri edo ez irakurri erabakitzerakoan.

Tradiziozko ospakizunen munduak baino jendeen kezak eta ametsak zerikusi haundiagoa dute, noski, horrelako testugintzan. Eta moda sartzen da tartean, eta denen ahotan dabilzan joerak, sentierak eta ikusmoldeak dira indarra hartzen dutenak.

3.2. *Balia daiteke kolektibitatea ere*

Jendaurrean irakurtzen duenak, lektoreak, osabete dezake, papera lagun, tradiziozko artistak bete ohi duen eginkizuna. Entzulegoak testua entzuten du, eta memorizatu ere egiten du. Eta testugintza berria hurbiltzen zaio jendarteari, estilo berriagotara entzulegoa hurbilduz.

Eta iadanik testu idatziak ahoskatzen dira elizetan, sukaldetan, ofizioen lanordutan, gremioen langintzetan. Eta tradizioaren alboan sortu eta indartu zen idatzizko testugintza bizia, gero tradizioan sartuko zena, adar berri bezala txertatu ere, tradizioaren zuhaitzean.

3.3. *Nahi adina aldiz errepika daiteke*

Eta honek erabilgarritasunari balio berezia ematen badio ere, asperzea ekar dezake eta, batez ere, beste testu berriagoen irrika eta gosea. Eta eskakizun haundiegirik gabe, askotan nolerebaiteko egokitasunez mamitzen dira testuak.

Eta dena ona da askotan, idatzirik baletor sorkuntza berria. Ez dago eskakizun haundiegirik testuen aukeraketan eta lanketan.

Kontsumoko testugintza baten aurrean gaude. Eta gizabanakoak gero eta zerikusi haundiagoa du testuen izateko arrazoian. Hala ere, irakurkera kolektiboa bide berri bat da tradizioa ugaritu eta berritu dadin. Baina beti kontuan edukiz, kontsumoa adiago dagoela testuen eskabideari berauen kalitateari baino.

4. Testuen transmisioa eraberriturik

Testuak hel-araztea, iadanik ez da ahoz-kotasunaren eremuan bakarrik osabetetzen, idazkiek horretan gero eta eragin bereziagoa dutenez. Orrialde ibiltarien bidez transmisioa zehatzago egiten da testuaren aldetik, zabalago hedaturaren aldetik, aberatsago xehetasun jakinen aldetik.

4.1. *Testua zehatza da eta finkoa*

Ahoz-aho eginiko zabalkundea ez da erabat berdina izaten transmititzailerik batetik bestera, denek zerbait aldatzen dutenez, zerbait eransten, kentzen edo zuzentzen. Oroimenetik oroimenera ibiltze horrek eraskotako aldakuntzak dakarzki testuen oihalean.

Idazkien bidez eginiko transmisioan, ordea, batbera da ereduak beti. Idazkerari esker, algebrako eitea hartzen duela esango genuke, Jousseren esakera erabiliz (16); eta espresabideen mekanismo biziak esklerosis itxura hartzen dute, eta materia iraunkor bihurtzen dira.

Horrelako espresabide finkoez baliatuz, ikasaldi berdinak egiten dira beti, nahi adina aldiz errepika litezke ikasaldi horiek, eta nolerebait gainditurik geratzen dira memoriak dakarzkien arazoak.

4.2. *Zabalkundean gainditzen dira lekuak eta garaiak*

Idazkiarekin zerikusia duten pertsonak, belaunaldiak, erakundeak eta garaiko lege-moldeak igarota gero ere, iraun dezake idazkiz finkaturiko testuak. Denboraren gaintetiko zabalkundea hartzen du testuak berak tinkotasunean.

(16) M. JOUSSE: *La Manducation...*, 46, 139 etc. or.

Eta berdintsu esan behar lurraldeak gainditzeari bagagozkio. Ahoz-aho eginiko zabalkundeak beso luzeak baditu ere (gogora dezagun "Bortegaray"-ren zaldia, Oiartzunen "Berdabio"-ren zaldia dela bertso-klitxe berean, eta Bizkaian ere jaso izan dela klitxe hau) (17), ez dituzte zango motxagoak bertso-paperek, aldizkariek eta liburuskek.

Eragozpenik gabe iristen da idazkia edozein mugetara, eta testu berbera da han eta hemen, idazkerari esker gailentzen dena. Eta testugintza jakin bat bailara bateko espezialitatea izatetik, denen ondare bihurtzen da, eta genero guztiak ezagutzea badago han eta hemen, eta tradizioa errekueratu ere egin liteke idazkiei esker, galdurik zegoen beste bailaratan, batez ere subkonszientean berekin zeramaten jendalde haietan.

4.3. *Idazkitik tradizioa*

Honelatsu eman daiteke batetik besterako bilakabidea: idatzitakoak gizabanakoak irakurtzen ditu eskuarki, eta honek buruz hartzen, gero aho biziz entzuleei banatzekotan, entzuleok ere beren aldetik transmititzaile izan litezkeelarik gerora. Edota bestela, eskuarki analfabetoa den entzulegoari testuok zuzenean irakurtzen zaizkio ahots ozenez.

Testua, belarriz entzun eta buruz jaso dutenengan, berriro ahozkotasunaren legeetara makurtzen da: besteak beste, xehetasun konkretuegiak ezabatzeraz, eta osagai berriekin nahastera. Eta baldintzapen horietan jasango du bere erosio-prozesu ohizkoa, harik eta berriro idazkiak erosio horri konponbide bat ezartzen dion arte.

Esan beharra dago, baita ere, idatzizko ederlana ahozkotasunaren eremuetan onartua izango bazen, estiloz idazki horrek ahozko eredu, prozedura, teknika eta gustamoldetatik hartu beharra zeukala, benetako txertaketarik egingo bazen. Idazkiak zail du ahozko munduan sartzea, estilo honetako osagai asko eta asko erabiliz ez bada.

Ahozko eta idatzizko estiloen mugan bere legeak ezartzen dituen fenomenologia bat azpimarratu ondoren, ikuspegi edo perspektiba moduko bat badugu, mugaldean garatu den idazkuntzak, zernolako proportioak dituen ikustagun.

– *Corpus* bat metatzen doa, gero eta bibliografia zabalagoa osatzen delarik idazkien bidez, berauek, suntsitzen ez diren arabera, pilatzen ari direnez.

(17) J. M. LEKUONA: *Berdabioren bertsoak (2)*, in "Oiartzun", 16(1986), 17-19 or. J. LAKARRA, K. BIGURI, B. URGELL, *Euskal Baladak*, 2 t, "Hordago", Donostia, 1983, 61 or.

– *Dinamika* bat sortu da idazkion eraginpean. Iadanik desberdinak dira testuen bidez artistek hartzaileekin dituzten harremanak. Idazkia dago tartean. Eta tradiziozkoan ez bezalako kontestuan osabetetzen dira, testugintza bera, piezen dastapena eta berauen transmisioa.

– *Estilo* bat markatzen da, kontsumoko idazkietan oinarritua, baina, aldi berean, tradiziozko legeetara lerratzen ezezik, usariozko literatur bitxi preziatuenak tartekatzen ere ahalegintzen dena.

Corpusari buruzko xehetasunak alde batera utziz, eta orobat dinamika horri dagozkion alderdiak, bertso-paperetan eta liburusketan agintzen duen literatur estiloaz dugu geure hirugarren txangoa.

III. ERDI-AHOZKOTASUNAREN ESTILOAZ

Fenomenologia orokorretik abiatuz, estiloaren arazoa zehazki azterterakoan, lehenik nabari den puntua da, eredu berriak aukeratzen direla, berauen antzirudira testugintza osabetetzeko asmoz. Jokabide honen zergatia, arrazoibide bat baino gehiagotan egon daiteke. Funtsean zera da: artistak ez diela aurkitzen edertasunik aski tradiziozko moldeei, ez gaie-tan, ez hizkeran, ez egituretan. Eta kanpoko eruedetara jo beharra daukala, hauen antzeko estiloa erabiliz (18). Eta eredu-aldaketa hau da lehenik azpimarratu behar genukeen alderdia, erdi-ahozkotasunaren estiloa zehazterakoan.

1. Ispilatzen diren ereduak

Eraskotako zantzuak eta arrastoak nabari dira herri-literaturaren idazkeran. Behin baino gehiagotan itzulpen hutsekin egingo dugu topo, bertso-paperean eta liburuska herrikoien itzulpenekin. Beste batzutan jatorrizko testuak izanik ere, bistan da iturria “colportage” edo mertxero eta kinkilariek saldutako testugintza dela. Kontsumoko idazkien kerantza dateke, teknikaz, prozeduraz, kalitatez eta arnasez maila deberdinetakoa; baina beti duintasun apalekoa den produkzio zabala.

Argibiderik emango diguten zenbait ereduren aipamena eskain dezagun, esanahitsu diren eta eskuera ditugun ereduen aipamena.

(18) D. GIRAUDON: *Chansons populaires de Basse-Bretagne sur feuilles volantes*, “Skol Vreiz”, Montroules, 1985, 95 or.

1.1. *Baladen estiloa*

Aipa ditzakegu frantzesetik itzulitako zenbait eredu (19). Eta baladetan aurki daitezke erdaratik euskaratutako errromantzeak ere (20).

Egokitze lan bat egon arren horrelako itzulpenetan, autorea saiatzen da, testuak berdintasun dinamikoa izan dezan jatorrizko testuarekin, honen eitzea eta itxura gureganatzen direla. Eta euskal munduko nortasun etnikoari eusten zaion arren, bistan da kalkoaren efektu berbera dutela, eta alboerrietako konta-poesiaren estiloa bertarakotzen digutela horrelako generoen oiartzun horiek.

Oraindik geratzen dira ahozkotasunean agintzen duten legeak, hala nola memoriaren apiorako lagungarriak, sekuentzien hasiera paralelistikoak eta mila teknika zahar eta bertako. Bistan da, baita ere, euskal gizarterako arrotzegiak liratekeen nabardurak ezabatzen direla, adibidez burges-aristokratikoen zenbait gortesia, zenbait ohitura kanpotiar. Baina estrofen kopurua, hurrenkera, eta batez ere klitxe murriz eta ilunetan agerturiko pasarteek, adierazten digute zenbait berria sartu zaigula gure testugintzan. Eta ez sartu bakarrik. Geroagoko bilakabideari jarraitzen badiogu, bistan da, XIX mendeko lehen herenean, genero bat landu zuela bertsolaritzak, urkaberako bertsoen multzo lazgarria (21).

1.2. *Idazki erlijiosoen estiloa*

Lehenik eta aurren-aurreneko, buruz ikasten ziren ereduaren eragina legoke. Izan ere, zenbait bertsolariren testugintzan nabaria da eta ukaezina doktrina zaharra deiturikoak utzitako arrastoa (22). Fernando Amezketa, Xepelar, Pello Errota, Udarregi eta abarrengan ikus daiteke, nola doktrinaren antzeko estiloa onartzen duten hitzetan eta esalditan, jendau-

(19) L. DASSANCE: *Chronique de la Chanson basque. Anderea gorarik*, in "Gure Herria", 38 (1966): "Ne faut-il pas, dans ces conditions, voir plutôt dans *Anderea gorarik* une adaptation de quelque vieille chanson, de France probablement, comme c'est le cas pour *Errege Jan*, *Elhorri churiaren azpian*, ou *Baldumeko oihana?* (320 or.).

(20) Adibide modura, J. M. SATRUSTEGUI: *Romance del amante relegado en la literatura popular vasca*, in "Fontes Linguae Vasconum", 1(1969) 353-361 or.; *Romance vasco de la doncella guerrera*, *ibid.*, 3(1972), 73-85 or. Beste xehetasun gehiago Y. LAKARRA, K. BIGURI, B. URGULL, *Euskal baladak*, 2 t. han eta hemen.

(21) *Idem.*, *ibid.*, 207-245 or.

(22) Buruz ikasten zen doktriaren eragina, gehiago zehaztu gabe, gauza nabaria da bertsolari zaharretan, bai hizkuntz eremuan, bai lesikoan, modismoetan, arrazoietan eta abarretan. Baita doktrinako pasarteren bati buruz parodiaren bat egiten denean ere.

rreko hizkera hura zela uste izanez, elizetan ere antzeko mintzaera entzungo bait zuten. Beraz, eredutzat egiten die Kristau Bideko testuak, gero hain gaitzetsia izango zen doktrina zaharrak (23).

Bazen, ordea, eliz literaturan beste genero bat, agiografia edota santuen bizitzak deiturikoa, bertso-papera eta liburusketan zerikusia izango zuena idazkeraren aldetik. Ahozkotasunean garai hartan ikusten ez den egitura luzeko bertso liburua sortu zuen Santa Jenobebaren bizitzak (24). Eta Xenpelarrek santuen bizitzei buruz bertso-berriak egiterakoan, agiografiak ematen dio bide, estrofa kantatuen erritmotan klitxe erlijiosoak mamitu zituan. Eta berdin "tenplu santuan", "sermoi eder bat entzun ondoren" sortu zituen klitxe apokaliptikoak (25).

Literatur kalitatearen aldetik ez liteke zuzeneko ekarri haundirik espero, literaturakoak ez diren piezetatik. Baina agiografiaren herri-onarpenean ez dago ahazterik, jendeek leienda unibertsalen egitura estetikoa aurkitzen dutela, batez ere Erdi Arotik datozen eskema mentalen zantzu estetikoa. Eta gero, ez liteke onarpenik espero, esaldien taxukeran, tradiziozko klitxeen ederra eta jatorra aurkitzen ez bada.

1.3. *Teatroaren estiloa*

Mugaren bi aldetan era eta neurri desberdinetan ematen den bulkoa litzateke teatroarena. Eta hala behar, izan ere, mugaren bi aldetako antzerki usuario desberdina kontuan hartzen badugu.

Ifarraldeko kantutegietan, eta umorezko nahiz satirazko bertso-berrietan, gauza nabaria dugu teatro zaharraren presentzia, gaietan, egoeretan, pertsonaietan, elkarrizketa moduetan, poemen erritmo osoan.

Etxahundarrak bakarrik aipatuko nituzke adibide modura. Barkoxekoaren kantugintzan ongi nabaria da herri-teatroaren zantzia eta bizia. J. Haritschelharrek aski ongi agertu digunez (26). Eta Etxahun Iruri deitu-

(23) J. M. REMENTERIA: *Euskal "Kristau Ikasbideen" historia laburra*, in "Kristau Bidea", "Jakin", Oñati, 1975, XXI-XXII or.

(24) A. ZAVALA: *Zapirain Anaiak*, ..., 61 eta hur.

(25) Id.: *Xenpelar bertsolaria*, in "auspoa", 88-89-90 zz., "Izarra", Donostia, 1969, 379 eta hur.

(26) J. HARITSCHELHAR: *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun, (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe. siècle*, "Cino del Duca", Biarritz, 1969, 324 eta hur. or.

rikoaren liburuan ere, bete-betea agertzen zaigu pastoralen estiloa, hain zuzen ere, bertso-sorta asko eta asko pastoraletako zati direnez (27).

Eredutza hori zailago gertatzen da hegoaldean zehazten, lehen begirada batean behintzat. Hala ere, bada gertakaria bat aski esanahitsutzat jo litekeena: teatrogile eta antzeslari direla bertso-paperean zenbait egile. Hiri haundietako bertsogintza bat teatroarekin loturik datorkigu. Hala nola Donostiako eta Tolosako zenbait autore. "Iru komeri bere burutik asmatu zituan Pepe Artolak" (28), eta "bi komeri asmatu zituen Ramos Azkaratek" (29), eta teatro-lanetan saiatu zen Biktorianoa Iraola ere (30).

Txirritaren bertsolaritza komikoak ere asko du teatrotik, zelebrekeriazko egoera prantatzean, elkarriketa moduan, pertsonaien karakterizazioan (Txirrita bera ere, mutil zahar eta gizen porrokatu, pertsonai haue-tako bat delarik bere zelebrekerietan, eta publikoari eginiko oharkizunetan. Bakarriketa zelebreen eitea dute Ereñozukoaren zenbait bertso-saio idatziek (31).

Mimetikazko estiloaz asko baliatzen da bertsolaria, eta esataria ere bai. Baina ez gutxiago teatroak izan duen tradizioetik. Eta ahozko antzerkigintza alde batera utziz, hiri haundietako bertsogintza hor dago, teatro-giroan bizi izan dena. Idazleek buruz ikasten zituzten teatroko piezak, itzuliak zirelarik behin baino gehiagotan idazlan horiek. Eta itzuliak zirenez, erdarazko moldetan osabetetzen zen beren ekarria.

Estilo honek herri haziagokoen tankera izan dezake: ez hain landua ahozkotatasunaren aldetik, baina bai bizia, eta jendearengana iristen dena, garaiko topikoen sorburu jakina.

(27) J. LARRONDO: *Etxahun-Iruri khantan*, "I.P.A.", Pau, 1977, "Phastual khantoriak", 29-48 or.

(28) A. ZAVALA: *Pepe Artola Elizetzea*, in "P. ARTOLA: *Ustez laguna detan ta beste bertso asko*", "Auspoa", 4 z., "Itzaropena", Zarauz, 1961, 15 or.

(29) Id.: *Ramos Azkarate Otaegi*, in "R. AZKARATE: *Galtzaundi ta beste bertso asko*", "Auspoa", 7 z., "Itzaropena", Zarauz, 1962, 10 or. eta abar.

(30) Id.: *Bitoriano Iraola Aristegieta*, in "B. IRAOLA ARISTEGIETA: *Oroitzak eta beste ipui asko*", "Auspoa", 9 z., "Itzaropena" Zarauz, 1962, 10 or.

(31) Id.: *Txirrita (Bizitza ta bat-bateko bertsoak)*, in "Auspoa", 19-20 zz., "Itzaropena", Zarauz, 1962. *Txirritaren bertsoak (I eta II)*, in "Auspoa", 101-102-103-104 zz., "Izarra", Donostia, 1971. *Ustu ezin zan ganbara (Txirritaren zenbait bertso ta gertaera)*, in "Auspoa", 126 z., "Izarra", Usurbil, 1976.

1.4. *Aldizkarietako estiloaz*

Kultur politikaren aldetik helburu finkoak eta zehatzak ditu aldizkariak, eta talde baten iritziak adierazten ditu. Proiektu bat dakar hizkuntza-ren arloan, eta honek marka bat uzten du testuen nolakotasunenean, estetikazko gustamoldetan, gaien aukeran, egituren forman, ahozkoari buruzko ikuspegi eta onarpenean edota gaitzespenean, eta beste hainbat alderditan.

Beraz testua ez da erabat autonomia bertso-paperan bezala, bitartekoek balioztatu eta erabilia baizik. Aldizkariaren araberrako funtzionaltasuna hartzen du testuak.

Aldizkariak eskua sar dezakete, ez bakarrik ortografian edota morfo-sintasian, baita lexikoaren aukeran, estilistikan, generoen aukeran, pieza-ren luze-zabalean, eta funtsezko literatur alderdien balioztatzean ere.

Poesi arloan, pieza laburragoak egiteko joera da gailentzen dena. Eta aldizkariaren barruan, funtzionaltasun jakina dutenez bertso-sortek (eder-garri eta deskantsagarri izan), bineta eta asmakaria eitea ere sartzen dira estiloan. Aproba berriak egin ditzake bertsolariak, kazetari munduko apaingarri eta denbora-pasarako diren saioen haritik. Bilintxengan ikus daitekeenez (32), eta berdin Basarriren bertsozko iruzkin laburretan, pro-sazko lan luzeagoen erremate eta bukaera gisan erabiletan (33).

2. **Prezeptibakiko aldaketak**

Gorago adierazi dugun fenomenologiaren arabera, estilo mudantza nahiko nabarmenak dira idazkerak ezartzen dituenak. Eredu zabalak aipatu ditugunez, orain xehekiago ager ditzagun prozedura eta tekniken alderdietatik sarturiko aldakuntzak.

2.1. *Pieza luzeen egituraketa*

Ahozko estiloko kantarien eta esatarien iharduna, laburra da eskuarki, batez ere idatziarekin kontaktzen dugun unetik. Idatzizkoak, ordea, ez du mugarik, hasteko behintzat. Eta egitura-molde batzuk erabiltzen ditu, ihardunari osotasun bat emango diotenak.

(32) J. M. LEKUONA: *Ahozko euskal literatura, ...*, 173-174 or.

(33) Id., *ibid.*, 103 or.

Ahozko testugintzak zailtasun haundiak ditu pieza luzeak asmatzeko, nor bere biografiaren hariari jarraituz mintzatzen ez bada, edota norberak ezagutzen dituen gertakarien kronologiari jarraituz ez bada. Eta horrelakoetan ere behar izaten du literaturan ikasia den norbaiten laguntzarik, ezer tajuzkorik eraikiko badu. Horregatik, azken urteotan agertu diren kontaera jakingarriek, liburuen egiturari bagagozkio, beti han dute idatzizko estiloaren langintza eta laguntza: edo idazlea bera da teknika hori ezagutzen duena, edota beste norbaitek lagundu beharko dio kanpotik, liburuaren egitura ongi eraiki dezan.

Uste baino zailtasun haundiagoak daude, ahozko eta idatzizko estiloen mugan lanak argitara ematen dituztenentzat. Honek esan nahi du, tradiziozkoak ez diren beste mugabarruan sartzen garela, eta egituraketa zabalago horiek ahozkoak ez diren beste estilora eramaten gaituztela azken batean.



2.2. *Hoskidetzan grafemak arau bihurtzeko joera*

Tradiziozko kantugintzan, hoskidetza gauza zabala zen eta aberatsa. Hasi hoskidetza magikoa deitu diogunetik (34), eta nahiz bokalez nahiz kontsonantez eginiko aliterazio guztietaraino, ezin aberatsagoa da ahoz-kotasuna, puntua deituriko atalean. Gaur, ordea, bertsolari askotxo ote dagoen nago, aliterazioa erabiltzeko joera galdu duenik. Hoskidetatik idatzizko sistemara iragotzean, ez dira ohartzen aliterazioek han beren langintza mneumoniko eta estetiko egin dezaketeenik.

Hiztegi errimatuaren gertakariak ere baduke zerikusirik ahozko estilotik idatzizkora lerratze horretan. Tradizioan hitz errimatuaren kopurua ez da hain ugaria, eta gainera klitxe jakinen barruan ikasi eta erabiltzen ziren, hoskidetasuna esaldiarena ezezik pentsamentuaren erritmoa ere bazelarik. Gaur bada metrikaren alderdi bat, liburuetan ikasi dena eta grafemen bidez ulertu eta erabiltzen dena. Mugaldekoko jokabidea hau ere.

Lehenago puntuak eredu zaharretatik gehiago ikasten ziren. Gero bakoitzak zuen bere ahalgoa, horiek erabiltzeko moduak asmatzeko, edota puntu berriak asmatzeko ere bai. Krazio lana zen lehenago puntuen sorkuntza. Gaur, ordea, eskolatze bat dago, estilo berri bat markatzen duena.

2.3. *Baliabide poetikoak*

Ahazkotasunaz egin diren ikaskuntzetatik begiratuta, tradiziozko estiloak dituen prozedura eta teknikarik estimagarrienak eta landuenak, ez dituela ez menderatzen, ez erabiltzen, bertsolariak. Hor daude estilizazio eta abstrakzio prozedurak, hor irudien erabilkera desarrazoizkoa: hitz batean, dekorazio-olerkia eta koplak. Eta jakingarri dena, prozedura landu horiek, tradizioetik datozenak, lehenago berreskuratu dituztela idatzizko estiloan diharduten olerkariak, azken aldera behintzat, bertsolariak baino.

Arrazoibide asko egon liteke guzti honen esplikakizun. Baina esan beharra dago, zama erretoriko ikaragarria jaso duela poemagintza mota batek, eta ez dituela bereganatu hizkuntzak dituen baliabide finenak. Bapatekotasunak, mnemotekniak, ironiak, estilizazioak, estetika tradizionalak ez ditu arduratzen; eta onartzen dira paperetan kurri dabilzan hainbat eredu arrunta eta merkeago, tradiziozko onenetik gutxi dutenak.

(34) M. LEKUONA: *Literatura oral vasca*, ..., 343-344 or.

2.4. *Kontaera luze eta xehatua*

Bai deskripzioetan, bai hiru unitateei dagozkien xehetasunetan, zuhurra da eta hitz justukoa herri-kontaera, non eta berari gertatutakoez ari ez den. Ez horrela idatzizko kontaera, ugariagoa denez hau, eta xeheagoa ere bai, mila ñabarduretan.

Eta bertsogintzan ere, indartzen da estilo bat, kronikatik asko duena; edota nahia bada, poetaren eitea baino gehiago kazetari eitea duen estiloa, Daniel Giraudon-ek esaten duena aipatuz (35).

Gehienez, estimu haundiagoa ekarri zaio bertsoari prosari baino. Oraintsu arte herri-kontaerak ez du izan bertso-paperen eta debozio liburusken zabalkunderik. Urteotan, berriz, *Auspoa*-k emaniko haizeari esker, garra biztu zaio eleberrigintzari. Ez du narratiba zaharraren gauza bitxirik. Baina estilo berri bat antzatu da, idatzizkotik ere lerratu dena. Eta bere goitasuna duena gainera, batez ere norberaren bizikizuna edo esperientzia, eta aurrekoetatik dakien tradiziozko altxor pertsonala isladatzen dituenen.

IV. ONDORIO OROKORRAK

Gure gaia garapen-puntu honetara iritsiz gero, ondorio bat baino gehiago legoke guk hemen nabarmentzea merezi lukeenik. Arlo asko sartzen dira hor jokoan: kreazioa, zabalkundea, irakaskuntzak eta antolabidea. Guk geure aldetik, ikuspegi bat, balioztatze bat eta terminologi hurbilketa bat eginez bukatzen dugu.

1. **Erdi-ahozkotasuna**

Hau litzateke mintzaldi honen ondoriorik nagusia: ahozko eta idatzizko estiloen artean hirugarren bat azpimarratzea, batetik nahiz bestetik duen testugintza, bata eta bestea nahasian joaten diren arabera.

Aipatu dugun fenomenologiak eta beronen ondorioz sorturiko estiloak, apio eta oinarrikerik aski ematen digute, erdi-ahozkotasunaren estiloaz mintza gaitzen.

Testugintza idatzia izanak, eta idatzizkotik dastamena bera eta zabal-kundea eta transmisioa egin beharrak, estilo jakin baten nolakotasunak

(35) D. GIRAUDON: *Chansons populaires de Basse-Bretagne*, ..., 105 or.

ditu berekin: testu finko, bakar, autoredun eta ahozkotasanak dituen kezkarik gabea. Baina kontsumoko literatur moldeetara isuria, funtzionala, eredu apaletan oinarritua, itzulpen edota egokitze-lana eskuarki. Hala ere, testuak idatzia izatetik bereganatzen dituen abantail guztiak dituena.

Ahozkotasuna, berriz, autorearen herri-ondaretik datorkio, eta har-tzaileen giza eta etnika mundutik. Autoreak ez daki ahozko erreferentziarik gabe idazten. Eta bildu ohi ditu testugintzan tradizioz datorzkion eta memorizatu dituen esaldiak, espresioak, teknikak, hitzezko esamolde bitxi-
nak, mintzabiderako baliabide egokienak. Eta ahozkotasunean dabilen aldetik, testigu bat da hitzegiten duena, honek berekin dituen alderdi on askorekin.

Aspaldian euskalduna erdaraz bederen, eta erdaraz gehienik orainstu arte, alfabetatua denez, ez da harritzeko idatzizko estiloaren eragina eta marka nolerebait nabari izatea. Baina agian teori mailan dihardugunean, ez ditugu behar adinbat kontuan hartzen, testu bat noiz den ahozko huts, noiz idazki huts, eta noiz bien erdiko, horrelako bereizketak egin litezkeen neurrian, noski. Eta behar-ordutan, ez dugu adierazten praxis mailan, erdi-ahozkotasan bat hor dagoela, tratamendu berezia eskatzen duena, geure adierazpenak egiterakoan.

2. Balio erlatiboko estiloa

Folkloristen ildotik doazenentzat, bertso-papera eta liburusketan emaniko testuek ez bide dute interesik, ahozko tradiziozkoak diren testuekin konpara balitez (36). Merkeak omen beren edukinez, formez eta artez. Eta egon badago arrazoibiderik aski, gure artean ere horrelako irizpideak nonean-nonean ager daitezten. Jakintz arloan, ezer bada eta, etnologiak eta antropologiak egin dute aurrerapen gure ikaskuntzetan. Beraz, aztertuago eta preziatuago daukagu tradizioa bertso-paperetako testugintza baino.

Antzeko jarrerari eutsiz, literaturako teorigile eta kritikoak leudeke. Mertxeroen eta kinkilarien testugintza honi eskerrik ez hartzea ez da harritzeko, papera horietako ereduak eta errazkeriak ikusiz. Eta egiaz, idatzizko estiloa eredu bakartzat onartzen bada, zail da horrelako beste irizpide batzutura eramaten, gutxiestera izan ezik.

Beste muturrean, berriz, ahozkotasunean berezko giroan bezala bizi direnen irizpide eta jokamoldeak leudeke. Teori mailan mintzatzerakoan,

(36) Id., *ibid.*, 95 or.

eta batez ere praxis mailan, zaku berean sartzen dituzte tradizioa eta erdi-ahozkotasuna. Eta biz bat eginik, bata bezala bestea goraiatzan dituzte edota gaitzesten. Bizitzan gero, liskar asko sortzen da, erabat goratzaile edota erabat mendrezatzaile direnen artean.

Erdi-ahozkotasunari literatur balio erlatiboa ematearen aldeko gara (37). Noiz litzatekeen estimagarri, eta noiz ez hain estimagarri edo balioitsu, mailaz-maila, zenbait adibide aipa dezagun:

a. Nahiz eta gaia kanpotik hartu, eta zenbait egitura eta prozedura ere bai, berridazketa bat ezezik, birsorketa bat ere gailurtzen denean, honelakoetan aurki daitezke tradizioaren eta norberaren aberastasun preziagarriak, tematikaren eta estrukturen aldetik oso onargarri gerta litezkeenak gure literatur kontsumorako. Tradizioak eta norberaren altxorrak zoragarri bihurtzen dute horrelako egokitze lana.

b. Badago literatur maila oneko ereduak kalkorik. Horrelakoetan, kalko huts izanik ere, itzulpena tajuzkoa bada, ekar lezake zerbait onik idatzizko estiloaren aldetik. Berriro ere, baladen itzulpenak, bizirik iraun duten haienak, ditugu gogoan. Eta areago estimagarri, kalko horietan tradiziozko literatur osagai ederrik sartzen bada.

c. Bada literatur mailara iristen ez den eredurik ere, gerta litekeelarik gainera, kalko txarra izatea bestalde. Eta horrelako testugintza ontzat ezin eman, literaturaz kanpoko beste dohaiengatik ez bada.

Beraz, balioa erlatibizatu beharra dago, ereduak, kalkoen eta tradiziozko ekarriaren arabera. Eta beti berezi beharko genituzke ahozko eta idatzizko estiloa erdi-ahozkotasunetik. Eta bertso-papera eta liburusketan ere oso adi egon behar zaio ahozkotasunaren balioari.

Izan ere, ahozkotasuna preziagarri jotzen dugu. Ez du honek egitura zabalik. Hedadura motxekoa da eta aldian-aldiko saioaren neurrikoa. Baina prozeduren aldetik, mekanismo ezin-hobeaz aparte, hor daude pieza txikiak, ezta ezta eta ahoz mamituak, erritmo bizietan kulunkatuak, hotsez eta erritmoz ideien azalpen instintibo eginik. Bai poemagintzan, bai eleberrigintzan, literatura idatziaren punta-puntako estilizazio, abstrakzio eta errepikatze prozeduretan, han dabil ahozkotasuna. Hitz batean, autore bakoitzak tradizioetik dakarren ondare etnikoa dugu.

3. Pedagogi irakatsiak

Erdi-ahozkotasuna eta beronen balio erlatiboa adierazi ondoren, bada guk azpimarratu nahi genukeen alderdi jakinik. Besteak beste, eta orain

(37) Lan estimagarria zaigu J. CARO BAROJA: *Ensayo sobre la literatura de cordel*, "Círculo de Lectores", Madrid, 1988.

une honetan kezkarri edota auzibide diren bi gogoratzuz bukatu nahi genuke ikaskuntza hau. Gaurko pedagogi mailan zerikusia duten alderdiak ditugu: erdi-ahozkotasunaren balioa kultur proiektu bat egiterakoan, eta bigarren, ahozko eta idatzizko fenomenu hauek izendatzekoan sortzen diren terminologi arazoak.

3.1. *Erdi-ahozkotasuna testu-ereduen jerarkian*

Testugintzan zer den goien mailako eta zer den bigarren mailako erabakitzeak, pedagogi planteiamentua zuzen edo oker eginik dagoen epaitzen du azken batean. Ahozko eta idatzizko estiloak gutxietsiz, erdi-ahozkotasuna denen gaineratik indartzeak, ez luke ondorio on eta beterik testugintzan ekarriko. Bertsolaritza, pastoralak eta herri-eleberrigintza eredu onak ditugu, tradizio-eredu finak aukeratzen baditugu, erdi-ahozkotasunaren eraskin makal, trakets eta hala-holakoak beztertuz. Baina arriskugarri lirateke ahozko eta idatzizko testu proiektuak, ikuspegi kritikorik gabe, erdi-ahozkotasunean batez ere oinarrituko balira. Besterik ezean, ahozko eta idatzizko estiloek behar lukete lehentasuna kultur proiektu bat egiterakoan.

3.2. *Terminologi arazoa*

Gaia zuzenean ukitzen ez badugu ere, zeharka bederen balegoke zerbait aipatu beharrik, estilo desberdinak aurkezterakoan erabiltzen ditugun zenbait terminori buruz.

Ahozko literatura deritzana. Gerraurrean Manuel Lekuonak *Literatura oral* deituriko hura, *ahozko literatura* bilakatu zen euskal idazkietan. Bada izendatze honen aurka dagoenik, batez ere azkenaldi honetan; eta ez arrazoirik gabe noski, batez ere, guk gaur egin dugunaren antzera, mimetikazko, ahozko eta idatzizko estiloak, gutxienez teori mailan, bereiztan badira.

Hala ere, izenburu hori hemen eta hemendik kanpo beste gehiagok ere erabiltzen dutenez (38), erabilgarritasun bat ezin ukatuko diogu hitzari, nahiz eta gauza anbigua dela gogoan. Badirudi hor, *ahozko literatura* esatean testua adierazi nahi duela, nahiz hotsez, nahiz grafiaz mamituri-ko zer hura.

(38) D. LAURENT: *La littérature orale*, in "PLUSIERS AUTEURS: *Bretagne*, "Christine Bannetan", Le Puy, 1979. Ataizean bederenik dio, espresio hau lehengo gizaldikoa dela, eta bretoi bati zor zaiola gainera: "S'il est un domaine où l'apport de la Bretagne à la culture européenne est depuis longtemps manifeste, c'est bien celui de ce qu'on appelle —l'expression est d'ailleurs d'un folkloriste breton du siècle dernier, Paul Sébillot— la *littérature orale*" (327 or.).

Ahozko hitzetik abiatuz, beste izendatze hauetara iristen gara: *Ahozko* (oral), *ahozkolarari* (oralista), *ahozkolaritza* (oralismo), *ahozkotasuna* (oralidad). Eta gero *ahozko* esatean zer bereizten, mugatzen eta zehazten dugun ikusteko, honelatsu joka dezakegu hobeagorik datorren arte: *ahozko estiloa* (estilo oral), *ahozko testugintza* (actio), *ahozko testua* (passio) (“literatura oral”), *ahozko tradizioa* (tradición oral) eta abar adierazteko.



Bestalde, *herri-literatura* da, behar bada, gehienik erabiltzen dena, eta gure erdi-ahozkotasunaren mundu honi ez bairik gabe dagokiona. Literatura kultoari kontrajartzen denez, bere hedadura zabalean barruan hartzen ditu *herri* mailako testuak, dela ahozkoak, dela erdi-ahozkotasunaren amarez idatzitakoak.

Ez genukeen xehetasun hauetara zertan jaitsi, ikusi izan ez bagenu, pedagogi aldetik testugintza ona aukeratu eta bultzatzeko dagoen beharra, eta bestalde, terminologia zehazten hasteko dagoen premia. Baina badirudi gauza xehe asko dauzkagula arakatu beharrak, gaurko literatur proiektu zabala, eta gaurko irakaskuntza bideratuko badira.

AZKENA

Laburtasunari amore emanez, mintzaldi honen zenbait zati eta zenbait hari nagusi baizik aurkeztu ez baditut ere, nahiko garbi geratu dela uste dut hemen nik, gaiaz, metodoz eta jarreraz, osaba zenak bultzaturiko ahozketasunarekin daukadan zerikusia. Eta aurrera ere saiatuko naiz, herri-literaturari buruzko ikaskuntzak egiten, ahozketasunari zerbitzurik minenak eskainiz, oralismoa zenez osabaren gairik kutunena, eta eskaini zuen mundurik bereziena, eta gure ikasgaia ere bai.

Eta saiatuko naiz, gainera, hau oso gogoan hartuz: gaurtik aurrera beste lotura bat badaukadala osabarekin, bera bezala, eta bere aulkia hartuz, euskaltzain oso izanez, herri-literatura alderdia landu eta zabal-tzea dagokidanez.

Gaurko ekintza honi, bai pertsoenez eta erakundez, bai mila modutako harrera onez, eman diozuen duintasuna eta ohoreagatik, eskerrik beroenak guztioi. Herri honetan duzue familia bat, euskararen zerbitzari izan dena. Aurrera ere, eta niri dagokidanez, itxaro ezazue nire gogo bizia eta langintza apurra euskararen alde.

“Agur, jaunak, Oiartzundik; jaunak, agur; agur t’erdi”.

MANUEL LEKUONA, KULTURLARI EUSKALDUNA

1988-VII-30

Juan Mari Lekuona

Pasadizuan ez bada, oraindik landu gabea dago Manuel Lekuonaren biografia. Eta baluke bererik haren bizitza ezagutzeak, hobeto jabetuko ginatkelako, ez Manuelen egintzaz bakarrik; baita euskal kulturaren azken urteotako zenbait alderdiez ere.

Hala ere, berak arreta gehiago zien idazkiei, bizitzako gertakariei baino. Erretirua hartu eta gero, Oiartzuna etorri zenean, esan zitzaion hura izan zitekeela egokialdi ona, bere oroitzapenak idaz zitzaion. Ez zuen aurpegi onik agertu; eta bere idazlan guztiak argitaratzeari ekin zion. Beraz, haren bizitzari buruzko argibideak bi eratakoak dira: idaleek, nahiz euskaldun, nahiz erdaldunek, han ete hemen agerturiko aipamenak, eta kazetariak galdekizunen bidez atera zizkioten eraskotako xehetasunak.

Guzti hauetaz baliatuz, haren idazkietako berriak bilduz, eta zuzenean entzun eta jasotakoak gogoan, geure laburpen biografikoa eskaini nahi dugu. Lekuek eta garaiek ondoen agertuko digute oiartzuar honen nortasuna eta langintza.

1. ETXEA ETA HERRIA

Bi osagai hauek erabat baldintzatzen dute Manuel Lekuonaren kultur izaera osoa. Etxetik eta herritik datozkio eta tradizioa bakarrik, baita euskal literatura eta historia ikasteko bultzada berezia ere.

Manuel Alejandro Lekuona Etxabeguren "Etxetxiki" baserrian jaio zen, 1894ko otsailaren 9an. Gurasoak oiartzuarrak zituen: Jose Luis Maria Lekuona Etxeberria aita, "Espaindegi"koa, eta Franziska Antonia Agustina Etxabeguren Intxaurrea ama, "Lizarraga"koa. Eta bederatzirekin senide izan ziren, sailean bigarrena zelarik Manuel. Gero, berekin izaten zuten Manuelek hainbat aldiz aipatzen zuen amona Tomasa. Kale-baserri horietakoa zen "Etxetxiki", aita lehenik "Makutso"-ko lantegian eta gero "Portu-berri"-ko zentrolean aritu zelarik lanean.

“Etxetxiki”-ko semea zen baita ere, Manuel Antonio Iñarra, apaiza, euskal idazlea eta euskalaria. Osaba-orde honek Nafarroako Diputazioak euskara irakasteko atera zuen katedra oposizioz irabazi zuen. Baina katedraz jabetu baino lehen hil zen, Manuelek lau urte besterik ez zituenean. Baina Miguel Antonionen liburuak “Etxetxiki”-ra ekarri zituzten: liburuak, idazkiak eta gainerako oroigarritxoak. Eta guzti hauen bulkoa eta eragina ume-umetandik sentituko du beti, batez ere seminarioko bidea hartzen duenetik.

Kultur joera idatzizkoa etxekoa duen eran, aitarengandikoa du bertsolaritzarako zaletasuna ere, aitzak festarik ederrenen artean, meza nagusia eta pilotariekin bertsolariak parekatzen zituenez. Eta etxekotik asko du, gero Manuelek erabiliko dituen tradiziozko kantu, ipui eta hitz biziko ikasketa bildumak.

Herrikoa du euskalkia, eta honen eusgarri diren hainbat hitzezko bitxi. Baina tradizio guztiaz gainera, herrian egin zituen histori mailako lehenengo ikerketa moduak. Serapio Mujila artxiboa ordenupean jartzen ari zen. Eta laguntzera joaten zitzaion “Etxetxiki”-ko estudiantea. Eta Errengako kromlechak ikustera ere joan omen ziren, T. Aranzadi lagun zutela. Eta hartu-eman hauek garrantzitsuak izan ziren, bai Manuel Lekuona histori eta arkeologi bidetan sartzeko, eta bai, beronen bidez, J. M. Barandiaran ere lan horietan hasteko. Hitz bitan, etxetik eta herritiko hasierak ditugu.

2. PROFESORETZA

Irakasletzan oso gazterik hasia genuen; eta ezer bazen eta, irakaslea zela esango genuke Manuel Lekuona. Izan ere meza berria eman aurretik, banatzen zituen eskolak iadanik seminarioan. Eta 1916an, apaiz egin berria zelarik, ekin zion Gazteizko seminarioko irakasletzari.

Hogei urteren buruan egindako zerbitzuan denetik irakatsi zuen: euskara, arkeologia sakratua, hebraiera, grekera, teologia eta filosofiako zenbait gai eta abar. Ikasle asko eta irakasle gutxi dauden garaietako kontuak ditugu hauek. Hala ere, eragin onik ere izan zuen eremu asko landu behar honek Manuel Lekuonaren jakintz neurrian eta erabiliko zuen metodologian. Jakintza zabaleko gizona agertzen zitzaigun, eta metodo interdisziplinarez gaiak ulertzen eta argitzen zituena.

Gaiekiko zerrenda luzeegi honetan, bi sail dira osperik haundiena ekarri diotenak: herri-literatura eta artea. Eta ez da harritzeko bi gai hauetan nabarmendu izana, kultur sentiberatasunez, intuizioz eta jakintzaz aparteko nortasuna zuenez.

Benetan aipagari irakasletzan kideko zituenen lantaldea. Aldian aldian biltzen ziren, gaiak eguneratu eta idaztortza zorroztu asmoz bildu ere, A. Pildain, Canarias-ko gotzaia izango zena, J. M. Barandiaran, L. Araviotore eta M. Lekuona. Lagunarteko batzar hauek zerikusi haundia dute Seminarioko ikasketetan, eta zeresanik ez oiartzuarraren idazkeran, ikerkuntzan eta lanerako gogoan. Seminariokoa du beraren ekarririk estimagarriena, ahozko literaturari buruz ikuspegia, hain zuzen bibliari buruzko bibliografian oinarritua zuenez, batez ere Marcel Jousse-ren idazlanetan.

Hiru sailtakoak ditu aldi honetako idazlanak: batetik eskoletan banatzen zituen gaien inguru landutakoak, (*Métrica vasca*, ikasturtearen hasierako mintzaldia, 1918, *La Poesía popular vasca*, Eusko Ikaskuntzak Bergaran ospaturiko batzarrean eman zuen mintzaldia, 1930, *Literatura oral euskérica*, liburua, 1935. Gero, literatur kreaziokoak leudeke, *Eun dukat*, antzerkia, bi idazkeraldi dituena, eta *Yesu Aurraren bizitza*, Lekeitioko Oleri jaietan saritua 1936an. Eta azkenik *Anuario de Eusko Folklore*-ko idazlanak, Oiartzuni eskainiak.

Gasteizen hezurberritzen da Manuelen kultur nortasuna: irakasletzako apeta betea, arte gauzetarako begirada espezialdua, metodo interdisziplinarra, gaiak idazteko disziplina eta kreazioko trabakuntza. Gasteizen mamitu zela esan liteke Manuel Lekuonaren kultur proiektu zabala, eta garatzen hasi ere bai neurri eder batean.

3. ARTXIBULANETAN

Gerrateak mozketa gogorra eta mingarria ekarri zuen Manuelen herrira eta familiara. Egoera ezin izan gozoa: bi anaia fusilatuak zituen, Julian eta Martin: eta Gasteizen jakin-arazi zioten beraren atzetik ere hasiak zirela. Eta orduan, bizirik aterako bazen, ihesari eman zion. Lasarteraino lehen txangoan, handik Frantziara joateko asmotan. Baina Don Antonio Abauntzek kaperau-etxean eman zion gordelekua. Eta lau urtez han egon zen ezkutuan.

Gerratea bukatutakoan, bere egoera normaldu asmoz hasi zenean, hemendik 200 kilometrotara aldegin beharra ezarri zioten, eta Calahorra aukeratu zuen erbeste-leku. Eta bazuen arrazoibiderik Errioxako huri hau aukeratzeko: han zeuden Euskal Herriko zati eder baten historia luzeenaren eliz artxiboak.

Hantxe murgilduko zen, erbestealdiari kultur etekina atera alde.

Bai Lasarten eta bai Calahorran artxiboak baino ikerketa-gai hoberik ez zuenez, eta euskal lanentzat orduan mila eragozpen, eta arrisku zue-denez, dokumentu zaharretan murgildu zen, historilarien ildora lerratuz, eta euskararen esparruko lanak egun argiagotarako utziz.

Urtealdi honetan ez zuen izan lagunarte zabala edukitzeko erarik. Artxibu-maiaketa eta hauetan aurkituriko emaitzak argitaratzea izan zen orduko haren langintza. Hala ere, aurkitzen zuen beti tarteren bat krea-ziorako eta hizkuntz gaietarako.

Lasarten idatziak ditu *La Parroquia de San Pedro de Lasarte*, 1949an argitaratua. *El convento de las Brigidas de Lasarte*. 1941ean bukatua. Eta konbentu honetan idatzia du *Gerrateko nere Amabi Kantak*, konta-poesiazko olerki idilikoak, autorearen azken poema lirikoa. Andoaina etorrita gero ere, mintzaldi modura edo, behin eta berriz aipatuko ditu Lasarteko historiari buruzko gaiak.

Calahorrako artxibuan hamalau urtez aritu izanak ikuspegi berria, jakintz altxorra eta heldutasun bat ematen diote euskal gaietarako, dokumentu zaharren irakurketen eraginez. Eta Calahorrako elizei buruzko ohar historikoak argitaratzen ditu: *La Catedral de Calahorra*, *La Parroquia de San Andrés de Calahorra*, 1949, *La Parroquia de Santiago de Calahorra*, 1952. Eta hauekin batera aipatzekoa han bildu zuen Euskal Herriari buruzko dokumentazioa, eta Errioxako toponimiaz eta etnografiaz argiratu zituen ikaskuntzak.

Urtealdi hartan izendatu zuten Euskaltzain Oso ere, 1950ean. Eta Iruñean egin zuen sarrerako mintzaldia. Orduan prestazen du *Gero* liburuaren laugarren argitaraldia, Euskaltzaindiaren aginduz, *Aintzin-Solasa* ere berak paratua duelarik 1954ean.

Beharrak eragiten dio ez gutxi Manuel Lekuonari historiaren barrutia harrotzera. Oso bigarren mailan gelditzen zaizkio ahozko literatura eta literatur sorkuntzazko lanak. Baina artearen historian gehiago sartzen da, Antxieta eta Bazcardoren eskulturgintza dokumentuen bidez arakaturik. Berriro lotu zaie arteskoletan eman ohi zituen gaiak.

4. KULTUR ZABALKUNDEAN

Erbestealdia 1955eko udazken aldera bukatzen du. Handik etorrita laister, ebakuntza bat jasan ondoren, kaperautza baten atzetik dabil, ogibide bat izateaz gainera, ordu libreak nahi zituen bere idazlanetarako. Ez zuen erraztasun gehiegirik izan, arik eta Andoaingo jesuitinak, txoko bat opa zioten arte.

Zabalkunde urteak direla esan behar Berrospeko kaperauak Andoainen bizitutakoak. Euskal kulturaren dibulgazioari emaniko urteak. Eta balegoke noski guzti honen sustraizko argibide eta esplikaziorik. Irakasletza zuen gogokoena Manuel Lekuonak; eta giro politikoa zerbait lasaitzen hasi zen hartan, gero eta eskabide haundiagoak zetozen handik eta

hemendik euskal hitzaldi eta idazlanetarako. Bokaioz eta beharra lotuz, kultur zabalkundeari eman zion Manuelek, berak ikerturik zeukana banatuz.

Andoainen landuriko jakintz eremuetan bat bereiztez gerotan, artea azpimarratuko nuke behar bada. Eta bi arrazoirengatik: A. Arrazola: *El Renacimiento en Guipúzcoa* lantzen ari zenean, Manuel Lekuona zuen zuzendari *campus*-lanetan. Lehenagoko aldietan arteari buruz lan monografikoak baizik idatzi ez bazituen ere, Andoainen *Arte-izti: estetika eta Arte edergin euskaldunak* idazten ditu. Ikuspegi orokor bat eman zuen berak hain ongi menderatzen zuen gaiari buruz, arte orokorrari buruz, eta Euskal Herrikoari bereziki, bere ikuspegia aurkeztuz. Arteaz gainera, azpimarratzekoa berak hainbat aldiz aipatzen zuen *Euskalerria historiaren sarreran* izeneko saiakera.

Hasieran Oiartzunen egin zuen eran, eta gero Lasarten eta Calahorran, lekuko kultur gaiak jorratu zituen Andoainen ere. Etorri eta laister, 1958an, opuskulo eran, *La Iglesia Parroquial de Andoain* (boceto histórico), *Doble conferencia acerca de la figura histórica de la M. Cándida de Zipitria y Barriola, Fundadora de la Congregación Religiosa de las Hijas de Jesús*, 1956, *Aita Larramendiren jaiot-etxea*, 1966, *Juan Bautista de Erro y Azpiroz*, Conferencia-estudio, 1973 eta abar.



Erraz nabarmentzen da Andoaingo urtealdiaren garrantzia. Andoainen bukatu zuen gerraurretik hasia zeukan *Del Oyarzun antiguo* liburua, 1959. Orduan egin zuen liturgi itzulpenetako lana, taldearen idazkaria zelarik. Garai hartan izan zen Euskaltzainburu, eta bere lehendakaritzapean hasi ziten euskara batua bideratzeko ahaleginak. Eta zuzeneko jokabidez esku-hartu zuen garaiko hizkuntz eta askatasun ahaleginetan. Zabalkundearen gogotik egin zuen lan, inoiz baino gehiago idatziz, inoiz baino gehiago ibiliz herriz-herriz zabalduriko irakaskuntzan. Sasoitsu etxeratu zen Oiartzuna, atzean utziz Andoainen urtealdirik emankorrena.

5. AZKEN URTEAK

Hogei urte, lau hilabete gutxi Andoainen egin ondoren, jaioterrira itzuli zen 1975eko Urriaren azkenetan. Lehenagoko lanetan eta pausutan jarraitu zuen. Lan berezia izan zuen bere *Idaz-Lan Guztiak* argitara emateko prestatuak egiten. Eta gogotsu aritu zela esan behar langintza honetan.

Sariak jasotzeko garaia ere iritsi zitzaion. Besteak beste, “Doctor Honoris Causa” izendatu zuen Gasteizko Seminarioan dagoen “Universidad Teológica del Norte de España” deritzan Ikastetxe Nagusiak; gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina ematen dio eta Gipuzkoako Seme Kutun izendatu, Euskao Ikaskuntzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek omenaldi bat eskaintzen diote Donostian. Eta Eusko Ikaskuntzak “Manuel Lekuona Saria” deritzana jarri du, euskal kultura lantzeko zereginetan nabarmendu diren ikertzaileentzat. Gainera, bertsolariak omenaldi bat eskaintzen diote Donostian eta Bertsolari Elkarteke ohorezko bazkide izendatzen dute.

Euskal Herriko Unibertsitatea ere familiakoekin harremanetan jarri zen, “Doctor Honoris Causa” egin nahi zukeelako erakundeak. Baina ordurako Probintziako Ospitalean aurkitzen zen, mundutik eramango zuen gaisoaldiak beharturik. Ez zuen izan sari hori jasotzeko egokialdirik. Hilabete eta erdi eritetxean egon ondoren, Jaunak berekin eramanean, 1987ko Uztailaren 30ean.

Hilez geroztik ere izan du aitormenik bere langintzak. Euskal Gobernuak, hil-ondorengo tituluz “Gernikako Arbolaren Gurutzea” eskaini zion, euskal kulturari egin zerbitzuengatik. Eta Gipuzkoako Aldundiak, *Idaz-Lan Guztiak* bilduma bukatu zuen eta argitaratu, liburuon erabateko aurkezpena eginez. Eta azkenik, Oiartzungo Udalak Herriko Seme Kutun izendatzen du, Uztailaren 31an, alderdi askotatik hain berea zuen herriaren bereizkuntza, bertakoentzat ohoragarriena, sustrairik sakonenetik sortutakoa denez.

Edukin jakinekoak eta neurri berezikoak ziren Manuelek euskal kulturaz zituen jakintza moldeak; ahozkotasuna eta literatura, ikonografia eta ikonologia, etnia eta historia, folklorea eta hizkuntza. Ereku zabalegia, behar bada, gaurko espezialduentzat. Baina jakingarria ere bai euskal tradizioa landu, gaurko pedagogian sartu eta benetan maita-arazi nahi litzatekeen ordurako.

Adimen zorrotzekoa zen gaiak aukeratu eta ikusterakoan. Disziplina gogorrekoa gaiak idatzi eta argitaratzekoan. Manuel Lekuonak utzi digun ondarea herri-kultura aurkitu izana da, aztertu izana, sailkatu eta balioztatu izana. Eta erakutsi zigun, maila sustraituan eta maila gorenean kulturadun izaten, bertako mundu honi eta beronen ulerkuntzari atxekimentua edukiz. Kulturadun behar dugu izan, baina Euskal Herritik. Euskaldun behar dugu izan, baina kultura unibertsalera zabalik. Hau da Manuel Lekuonak utzi digun ondarea. Eta hau, berak egindako lan guztien mezua eta ardatza.

JEAN HARITSCHELHAR-EN HARRERAKO ERANTZUNA

Oiartzun, 1988-VII-29

Jean Haritschelhar

Euskaltzain buru ordea

Agintari ohoragarriak,
Euskaltzain lagun-kideak,
Jaunak eta andreak.

Iparraldeko eta Hegoaldeko harremanen aipatzekotan pilotarien arteko lokarriak nahi nituzke lehenik gogoratu herri literaturaren bitartez, gure bertsolariak edo kantu egileak izan direlaketz gertakari ospatsuen lekuko.

Utzirik alde baterat Perkainen kantuak, zaharrenak dudarik gabe, nola ez aipa Irungo partida famatua 1846-eko Abuztuaren 9-an jokatua. Zoritxarrez, irakurtzen dugularik orduan sortu zen kantua, izen bat bakarik aurki daiteke, Gaskoina Hazparneko pilotari paregabekoarena.

Handik bost urteren buruan, 1851-ko Irailaren 8-an jokatu zen erraboteko lehen partida Urruñako plaza laxo berrian, Antoine d'Abbadie-k eskaintzen zituela sari ederrak: 400 libera erraboteko partidaren irabazleeri, 100 libera pilotari hoberenari, 100 libera plekako pilotari hoberenari. Gaskoina eta hiru Saratar (Michel Dihursubehere, Norberto eta Arrondio (sic)) ari ziren lau Oiartzuarren kontra, hauen artean Belchor eta Manuel, bertze bien izen edo deiturak ez zazkiela kasetalariak.

Nahiz Oiartzuarrek galdu partida, Oiartzungo Manuel-ek irabazi zuen pilotari hoberenaren saria. Jakiteko nor zen delako Manuel hori eskuratu nuen 1852-ko Urruñako besten programa eta hauxe aurkitu nuen:

“3.º. Içanen tuzte yar lekhu berechiac, Gascoina Haspandarrac, Michel Dihursubehere, Norberto, Larrondo Saratarrac, guanden urthian erreboteco partida irabaci çutenac:

Manuel Lecuona Oyarzundarrac, ceinec içan baitu yas pilotari hoberenari aguindu precioa:

Norberto Saratarrac, Duhalde Uztaristarrac, pleicaco partida irabaci çutenac.”

Pilotari famatua beraz Manuel Lekuona hori, Iparraldean maiz jokatuko dela bai Urruñan, bai orduan eraiki zen Miarritzeko plaza laxo berrian, bereziki, hain zuzen ere 1854-eko Urruñako bestetan. Hona nolakoa zen partida: Gaskoina eta Harriague Hazpandarrak, Michel Dihur-subehere eta Otharre Saratarrak alde batetik, Elizanburu guarda, Arrondo eta Vicente Urruñarrak Manuel Lekuona-rekin bertze aldetik. Azken hauek irabazi zuten eta Manuel Lekuonak bereganatu zuen pilotari hoberearen saria: erraboteko guante bat, horretan idatzirik zagoela Urruñia-1854 eta guante horrekin dirua: bi ontza urre.

Dakigularik orai bezala lehen ere partidaren ondotik bazela bazkaria eta gero kantu eta bertsoek sortzen zuten omore ona, ez zagon leku txarrean Manuel Lekuona bere lagun pilotaria Elizanbururekin, Jean Baptiste Elizanbururen anaia hau, Leon izenez, guarda Urruñan, bera bertzea bezala bertsolaria eta kantu egilea. Alabainan, Leon Elizanburu horrek eta ez Jean Baptiste-k, askok uste duten bezala, irabaziko zuen 1855-ean Antoine d'Abbadie-k eskainikako olerki saria, urte horretan gai bakarra zela: emazte edalea.

* * *

Horrela egin nuen Manuel Lekuona pilotariaren ezagutza, duela orai 30 bat urte Pariseko liburutegi nagusian, Antoine d'Abbadie-ren paperak ikertuz. Nor zen Manuel Lekuona hori ez dakit. Don Manuel-en aitona beharbada edo bederen familiakoa. Dena den, deitura eta izena berekoak ziren bai pilotaria eta bai igaz ehortzi dugun gure euskaltzain lagun-kidea. Manuel Lekuona pilotariarekin eta Leon Elizanbururekiko adixkidetasuna gatik sartzten gara Don Manuel euskaltzain zenak hain ederki aztertu duen euskal ahozko literaturaren arloan.

Larogoi eta hamahiru urte zituelarik (1894-ean sortua) zendu zen Don Manuel Lekuona bizi luze bat iraganik, elizari, euskarari eta euskal kulturari emanik bere gogo eta indar guziak. Lau apezpiku, berrehun bat apez eta zazpi Euskal Herrietarik jinikako jende ostea Oiarzuarren eta familiaren inguruan, elizan eta kanpoan zauden erakusten ziotela Don Manuel-i beren atxikimendua. Ezin ahantzizko ehorzketak!

Ezin ahantzizkoa ere Donostiako Gotzaiaren mintzaldia Don Manuel-en gorputzaren aurrean, hauxe erraiten ziola:

“Hasieratik esan nahi nuke hemen azaltzen danak ez dituela ukatzen Don Manuel onak, iñolaz ere, izango zituan hutsegite eta hutsuneak. Ez luke izan nahi haundiespen-panegiriko bat. Ez zuen horrelakorik onartuko Don Manuel-ek. Bañan uste det badirala une honetan ixildu ezin

leizkeenak: badirala nola edo hala esan beharrezkoak: badira une batzuek, leial jokatu nahi bada, zerbait berezia eskatzen dutenak.

Baita ere hasieratik Euskalerriko eliz-barruti bateko buru izanik, eliz-estrukturako Gotzai izanik, barkamena eskatu nahi diot bene-benetan, pentsatzen bai det, une gogor eta larri batzuetan, gure zoritxarreko gerratian, Elizak ez zuela behar dan bezalako jokabidea izan Don Manuelekin ta beste batzuekin. Don Manuel, Zuk hainbeste ta hainbeste, ixil-ixilik, mardul-mardul, jarraipen osoz, eskeintza betez, leialtasun argiz, zintzotasun haundiz, maite izan dezun gure Eliza - Ama, gaur bere eguna ospatzen degun Loiolako Inazio donearen antzera, Zuk bai benetan esan izan dezula, hitz eta egitez: Sinisten det, sinisten det.

Hauen jokabidea ikusita diot aurrera, gaurko nere hitz hauek omenalditxo bat izan nahi dute beste hainbeste apaizentzako: ta hoiien artean bere anai Don Martin ospetsu, jator ta langillearentzako. Hauen jokabidea ikusita, honek hainbeste urteetan zear eraman izan dan bidea ikusita, hau da neri bihotz barrendik datorkidana: Merezì, merezi du.”

Hala mintzatu zen Gotzaia, bere omenaldian biltzen zituela bi anaiak, bat bortizki tirokatua, bertzea herbestean hogoi urtez egona, ixilik jasan zituela bere pairamenak.

* * *

Bainan biziak bere bidea derama eta Euskaltzain bat hiltzen delarik bertze euskaltzain bat izendatzen da. Don Manuel Lekuona-ren orde z bertze Lekuona bat, izenez Juan Mari, osaba bezala Oiartzuarra. Nepotismoa ote, batzuk pentsatu duten bezala? Ez dut uste, ezen hautaketak egiten dituelarik Euskaltzaindiak, tituluak, diplomak eta merezimenduak azterturik bere erabakia hartzen du, erabaki hori dela gehiengoaren erabakia. Eta ez da Juan Mari Lekuona, titulu, diploma eta merezimendurik gabekoa.

Orai zuri mintzo nitzaizu Juan Mari adiskidea. Lehenik nahi dizkitut eskerrak bihurtu aitabitxi gisa hautatu naizulakotz. Zertako ote? Zure osaba eta zu bezala Herri-literaturazale naizelakotz? Badaiteke. Behar bada, bere sortegunetik Euskaltzaindiak Iparraldeko eta Hegoaldeko kideak biltzen dituela ikusirik, nahi ukan duzu erakutsi Europa batu bati buruz goatzilarik, ez duela mugak deus ikustekorik gure harremanetan. Badaiteke ere. Jakin-zazu atsegin haundirekin etorri naizela goiz honetan honar rat eta ohoretzat hartu dudala egin duzun hautaketa.

Ohartxo bat hasteko: Sacha Guitry frantses antzerki idazleak, Lucien Guitry antzerki jokolari famatuaren semeak maiz erraiten zuen: Jadanik badaukat aitak emanikako deitura ohoragarria. Norbait izaitekotan, izenaz bakarrik behar dut deituraren araberako fama lortu. Lekuona zara deitu-

raz, deitura ospetsua, Gipuzkoako seme Kuttun baten deitura, osabarena. Osaba zen Don Manuel, zu zara Juan Mari.

Egia da izan dela osaba bide urratzaile, egia da izan zarela haren jarraitzaile. Hura apaiza zen, zuk ere bide berbera hartu duzu. Bainan urrunago joan zara. Erromako Gregoriana Unibertsitatean segitu dituzu istudioak eta tesia landu Doktore tituluaren lortzeko teologian. Hori zen 1966-eko Maiatzean, Erromako “Pontificia Universitas Gregoriana” famatu hartan, gaia zinuela: “Ideario ascético-pastoral de Fray Bartolomé de los Mártires, O. P. (1514-1590)” urte berean argitaratua.

Bide urratzaile osaba Gasteizko Seminario nagusian sortu zituelarik –hori zen 1920 eta 1936 artean– euskal literaturazko ikasketak, Jose Migel Barandiaran-ek denbora berean idekitzen zituela apaiz-gaien gogoak Euskal Herriko aurre-historia eta etnografia erakatsiz. Zu, halaber arizan zara Donostiako Seminario nagusian, Aszetika eta mistika lehenik, Euskal literaturaren historia gero erakasle izanez eta euskal literaturaren erakaskuntza segituz bai Donostiako EUTG-en, bai Deustuko Unibertsitatean. Beraz biak, osaba eta zu, erakasleak izan zarete, bakoitza bere garaian. Hura zen Don Manuel, zu zara Juan Mari.

Ez dago erakaskuntzarik, bederen mail horretan, ikerketarik gabe. Egia da izan dela bide urratzaile Don Manuel, gerla aurrean nehork ez baitzuen harek bezala sakondu ahozko literatura. Gogora ditzagun haren lanak, hala nola *De métrica vasca* (1918), *Poesía popular vasca* (1930), eta *Literatura oral euskérica* (1935) azken hau berrargitaratua. Zu ere bide hortarik ibili zara eta zabilta, orai bertan erakutsi duzun bezala. Zuhau-rek aitortzen duzu diozularik: “Ahozko literaturarekiko atxekimendua etxetik datorkit, Manuel Lekuona euskal oralisten artean aitaogietako bat osaba dudanez eta zeinari apaizgoan ezezik oralismoan eta poemagintzan hurbildik jarraitu diodanez”.

Duela orai sei urte, 1982-an hain zuzen, argitaratu duzu 265 orrialdeko liburu eder bat, *Ahozko euskal literatura* deritzana. Bainan ez du tituluak egiazki salatzen duen mamia, herri literatura aztertu baituzu ere, herri literaturak ahozkoak baino eremu zabalagoa besarkatzen baitu. Denak ikertu dituzu liburu mardul horretan, bai dekorazio-olerkia, bai koplak zaharrak, bai bertsoaritza, erretorika, estetika eta metrika kontutan hartuz. Aldi bat baino gehiago irakurtu dut eta beti miraturik egona naiz agertzen baitira liburu horretan zure kalitate gehienak: jakituria, zehaztasuna, argitasuna. Nehor ez daiteke herri literaturaz mintza zure liburua aipatu gabe. Liburu horren sarreran zuhaurek aitortzen duzu osabari zor diozuna: “Manuel Lekuona-ren idazlanak oinarri hartzen badira ere, hor doaz gure azterketak eta oharkizunak”. Eta urrunago: “Hemen ere Manuel Lekuonari jarraituz ematen dira koplak izeneko horien pentsaera eta teknika berezia. Bainan saiatu gara gure aburuz arretagarriak diren beste alderdi teknikoak eta ohar kulturalak ekartzen”.

Zein polliki eta zein goxoki, nehuri minik egin gabe erakustera emaiten duzun beste ikuspegi bat azaltzen duzula. Osaba bide urratzaile izan balinbada, zuri esker xendra edo bidexka hori errege bide bilakatu da. Hura zen Don Manuel, zu aldiz Juan Mari.

Eta azkenik nola ez aipa ez zarela Euskaltzaindian sartzen literatura-zale gisa, bainan olerkari eta kreatzaile gisa ere. Hor dira zure olerki liburuak *Muga beroak* eta *Ilargiaren eskolan*, jakinik “Ezkontzeko eskari otoitzak bertsotan” agertu direla *Jaunaren Deia*-n 1982-an. *Ilargiaren eskolan* irakurtuz, ikus daiteke olerki askotan neurtitz libreak baliatzen dituzela askatasun gehiagoren ukaiteko, behar-bada, pentsamenduaren alde-tik. Mundu magiko baten barrenean murgiltzen gara, gorputz eta arima, eta gure gorputz eta arimen zoko-mokoak ikertu nahian zaude, gure nortasunaren hobeki zilatzeke. *Bizi leku*, *Esku*, *Ile adats*, *Haragizko estatu* eta *Begitarte* dira olerki nagusiak estetika eta metrika oso desberdinen bitartez argitara eman dituzunak.

Har ditzagun bi adibide. Lehena erritmo zabalekoa:

Eta ile adatsetan loraturik dagerkigu
barne indarren sinbolu magnetikoa
ile beltzaren
eta ile gaztainaren
lurtasun iluna.
Ile horiaren eguzki lorezko
unibertso beroa
Ile gorriaren eragin benusiar demoniozkoa.

Bigarrena aldiz, erritmo arin eta jauzikorrean:

Eskuak eskuekin
txalopin-txaloka:
eskuak eskuekin
txalopin-txaloka:
Zeruan hasi dira
izarrak saltoka
ala morena!
izarrak saltoka...
Eskuak eskuekin
txalopin-txaloka.

Español erran zahar batek diona “Siempre la cabra tira al monte” nabari da zure baitan, koplaz zaharren neurtitz eta neurkadetarat itzultzen baitzira:

Eder basoan haritza
gaztain besangek zumitza,
Gerri ederrak ordu zuritan
gau luzatzen dabilta.

Eder hibaian ahate;
 kanpai dorreak lau ate;
 Lepoa tornuz biribilduek
 musika sutan daukate.

*Liburu*en karroxen ironiak herrikoi estetika beharrezkoa du, karroxa, berez, asto laster eta tobera idurikoa baita. Bainan hauetan kausi daiteken kritika zorrotza zuk idatzitakoan ironia ezti eta goxo bilakatzen da, argi eta garbi erakutsiz nor zaren:

Liburu berriz dator Aresti.
 Bertso oroz, bainan diruz garesti.
 Gain eta barne, gorria guzti.
 Askotan garratz, gutxitan ezti,
 Bainan ez daukat zertan malmeti
 Min dut zaigula joan urruti.

Bertso horretan agertzen zaigu Aresti hitz gutxitan jujatua:

Gain eta barne, gorria guzti
 Askotan garratz, gutxitan ezti

eta denbora berean zuhaurek salatzen duzu zure burua juja gisa eta kristau edo apaiz gisa azken neurtitzean

Min dut zaigula joan urruti.

Erakusten duzu zuretzat norbait zela Xalbador hain goxoki aipatzen duzunean:

Hegala eta usoa;
 lainoa eta lausoa.
 Hegala eta usoa;
 lainoa eta lausoa.
 Gauza bat-bera du Xalbadorrek
 bere izate osoa
 goien mailara jaso
 bizitza eta bertsoa.

Apaiz, erakasle, ikertzaile, olerkari, ez ditut dauzkatzun merezimendu guziak aldarrikatu, utzi ditut ilunpean idatzi ditutzun hanbat eta hanbat artikulu, saio, hitzaurre eta prediku. Nahiago izan dut gaingiroki aipamen bat egin. Gure artean sartzen zara egun ofizialki, hemen, Oiartzunen, zure sort-herrian. Lekuona baten alki hutsean Lekuona bat jartzen da. Deitura berekoak, hura zen Don Manuel zu zara Juan Mari.

Ongi etorri!

ANAIARI BERTSOAK

Andoni Lekuona

KOPLA BERRIAK

Gaurko egun honetan, Euskaltzaindiaren eta Jaun Mariren egunean, familiak parte hartzea nahi izan duzutenez gero, utzi zaidazute egun hau gure erara ospatzen. Gurean, beste familietan bezela, egun haundi batek otordua eta lagunartea bereak ditu otorduak eta lagunarteak kantua berea duten bezala.

Kantuan hasiez gero, hor etorriko dira, seguru bartso zahar batzuk, askotan koplak eta antzinako kantak eta batzutan, gurean bahintzat, kanta berriren bat ere bai. Berria letra-aldetik, berria doinu eta letra-aldetik. Ahozko literaturan, bai sortzerakoan eta batez ere belaunaldiz belaunaldi pasatzerakoan, garrantzi haundikoa izan da orain arte familiak eta famili-giroak izan duen eragin indartsua.

Garuko honetan koplak batzuekin ospatu nahi izan dit gure garuko eguna. Nik ez dakit koplak hauek ahozko literatura estilok duten ala literatura idatziarena. Sailketa lana Juan Mari berari utziko diogu. Garbi dagona hauxe da: kantuz eta kantatzerako eginak dirala. Dena dela eta horretan ez dut dudarik, azken batean Herri-literaturaren adibide bat dirala.

KOPLA BERRIAK

"Santa Ageda" bezela

Agur Herriko jende noblia
gure Sanistebanetan.
Zorion eta osasun ona
bezate beren etxetan.

1. Pozikan gatoz auzo-herritik,
pozik gure Sorterrira.
Pentsatuz han bilduko gerala
bihotzak lasaitzen dira.
2. Aurtengoan ospatutzen dugu
Euskaltzaindiko eguna.
Herritar bar onartu bait dute
euskal lanetan laguna.

Juan Mari anaitari

A-gur He-rri-ko jende no-bli-a ga-re
Sa-nis-te-ba-ne-tan Zo-ri-on e-ta o-sa-sun
o-na be-za-te be-ren etxe-tan
Po-zik-kan ga-toz au-zo-ha-ri-tik Po-zik-kan gu-re sor-te-ri-
ra Pen-ta-tuz han bil du ko ga-ra-ra bi-ho-
tzak la-taitzen di-ra pen-ta-tuz han bil-du-ko ga-
ra-ra bi-ho-tzak la-taitzen di-ra

Euzkera 1981 uztailak 30

3. Osabak markatua utzi du
zer egin gure Herrian.
Juan Marik txanda gogoz hartu du
sarturik Euskaltzaindian.
4. Euskal lanetan gure Herriak
eman du zenbait landare.
Izendapen hau izan dedila
Oartzun-entzat ohore.
5. Euskaltzaindia eta Herria,
jokatuz biok batera.
Era horretan salbatuko da
hain maite dugun Euskera.

Letragilea: Andoni Lekuona
Endaian, 1988-go Uztailak 30